


53

500 pezeta / 20 libera • 2000ko ABENDUA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: ALFREDO
HOYUELOS • IKASLE EGUNA •
GUK GEURE ESKOLA •
TEORIAK: JOSEPH D. NOVAK



GAIA

Reggio Emilia
Italiatik Euskal Herrira



gaia

REGGIO EMILIA

Italiako herri honetako udal haur eskolak bisitatu zituzten HIK HASIko hiru kideek. Hango proiektu berezien berri ematen digute. Beraiekin batera hemendik joandako beste ordezkarien iritziak ere jaso ditugu.



elkarrizketa

ALFREDO HOYUELOS

Pedagogo eta
Tru eko Udal Haur Eskoletako tailerista

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

REGGIO EMILIA
Italiatik Euskal Herrira

Josi Oiarbide eta Maite Saenz

24 elkarrizketa

ALFREDO HOYUELOS

30 I. Ikasle Eguna Amurrion

32. Hatz eta behatz

34 ekarpena

Guk geure eskola

Sortzen-Ikasbatuaz, Ikastolen Elkarte eta Euskal Herriko Guraso Elkarteak (BIGE, Baikara, Sortzen eta Denon Eskola)

33 berriak

Loli Anauti omenaldia. Sarean IX. Topaketak.

38 argitalpenak

Gazteak eta Euskara. EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritzari buruzko azterlana.

Euskal irakaskuntza autonomi aroan.

39 teoriak

Joseph D. Novak

Fermin M^a Garcia Gonzalez

Argitaratzailea: **XANGORIN** Zirkuitu Ibilbidea, 2. Pabilioia. 20160 IASARIE-ORTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.15.45 Fax: 943/ 36.10.48. Posta Elektronikoa: hikhasi@antza.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Itziar Barriola, Mikel Estonka, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Billbatua, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urzaa, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAM Grafik maketazio, aurreinpresioa: Xangorin Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Reggio Children. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2000/XI/14. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO




Haurrak, pailazoak eta pertsonaia ezagunak protagonista.



22 euskal jolas

Zatoz jolastera!



Eskaintza
berezia!

Norbanako harpidedunentzat
~~7.500 pta.~~ 1.600 pta.
Ikastetxeentzat, 10 bidetik gora
eskatuz gero, bakoitza 2.000 pta.

editoriala abendua

Euskararen kontrako erasoaren aurrean tinko



Kontseilua osatzen dugun elkarteok AEKren aurkako operazioa gogor kritikatu eta mobilizazioetarako deia luzatu dugu.

Hamaika gai genituen editorialaren orri hau betetzeko. Hala ere, azken erasoak sortutako egoera larriari ezohiko ekimena zor geniola iritzi diogu. Orri honetatik, Kontseiluko gainontzeko kideen ahotsari gurea atxikitu nahi izan diogu. Jarraian, denon artean adostutako testua aurkezten dizugu.

Hemen bildu garenok AEKren kontra Garzon epaileak hasitako erasoaldia euskararen kontrako erasotzat jotzen dugu. Euskararen normalizazioaren aldeko jarduera desberdinak zigortzeko bidea irekitzeko saiakera dela ere uste dugu. Izan ere, epaile honek eginiko autotan euskararen alde jardutea delitutzat jotzen du inolako disimulurik gabe.

Euskararen kontrako ekimen

zehatz baten aurrean gaude: AEKren ondasunak bahitu eta bere kide batzuk auziperatu dituzte, euskararen alde egiten duen lanagatik. Ekimen hau hemen bildutakoaren eta euskararen alde lan egiten dugunon kontrako ekimena da. AEKk euskararen alde eginikoaren lana beharrezkoa da. Eta erakunde honek bere jarduera normaltasunez jarraitu behar du. Horren aurrean,

1.- AEKren kontra irekitako bide hau bertan behera utz dezatela eskatzen dugu.

2.- Euskal Herriaren izaeraren elementurik funtsezkoena eta herritarguztion ondarea dena interes politikoen arabera erasotzea ez da onargarria.

3.- Kontseiluak gizarteari, insti-

tuzioei eta alderdi politikoei bere ikuspegia azaldu eta euskalgintzaren defentsan inplikatzeari eskatuko die.

4.- Orain arte egin den bezala, lanari indarrez ekingo diogu eta denon artean lortutakoa zaintzen eta euskarak dagokion tokia hardezan ahaleginetan jarraituko dugu.

Kontseiluak eta bazkide dituen elkarteok gure kideei helaraziko diegu AEKk antolatuko dituen ekimenen berri eta bertan parte hartzeko gonbita luzatuko diegu. Halaber, euskararen aldeko gainerako mobilizazioetan parte hartzeko deia ere zabaldu nahi dugu.

Entzun bedi gure ahotsa, jakin bezate herri honek aspaldi hartu zuela euskararekiko konpromisoa. Gehiengo sozialak hala adierazia du!

kronika

Ipar Euskal Herriko zenbait eskoletako jangeletan ez dute behi haragirik jango abenduaren erdira arte gutxienez. Behi eroen auzia dela eta, abere irinen debekatzearen berri ofiziala jaso artean ez dute behirik zerbitzatuko.

Herriko Etxeek, gurasoek hala eskatuta, debekatu dute eskoletan behi haragia jatea. Miarritze, Baiona, Hendaia, Donibane-Lohitzune eta Mauleko eskoletan hartu dute erabaki hau, besteak beste.

EAEEn eta Nafarroan behi eroak ez daudela esan dute agintariek, eta behikia jateko arriskurik ez dagoela. Hala ere, Nafarroako zenbait guraso kezkatu egin dira eta Jangarriak enpresak txahal haragia zerbitzatzeari utzi behar izan dio gurasoen eskariz. Nafarroako gainontzeko jan zerbitzuko enpresek, ospitaleek eta zahar egoitzek, bestalde, behikia zerbitzatzan jarraitzen dute, haragi hori ez jateko arrazoirik ez dagoela eta.



Erreformaren dekretuak hizpide izaten jarraitzen du

Madrilgo Hezkuntza Ministeritzak gizarteratu ditu DBHko eta Batxilergoko erreformaren dekretuak. Abenduaren 15ean aurkeztu zien Pilar del Castillo Hezkuntza ministroak autonomia erkidegoetako Hezkuntza arduradunei, eta hilaren 24an Estatuko Eskola Kontseiluei.

Dekretuekin ikasgaien eduki minimoak eraldatzen dira, hots, estatu espainiarrak estatu osorako zehazten dituenak. Horrela, ordubete gehiago ezartzen da matematika eta espainiera ikasteko, plastika eta musikarako ordubete gutxiago eta Batxilergoko bigarren urtean Espainiako Historia derrigorrezko ikasgai bihurtzen da.

EAEko Hezkuntza sailburuorde Alfontso Unzetak adierazi zuen autonomia erkidegoen eskuduntzak mugatu egiten dituztela aldaketa horiek. Berezko hizkuntza duten autonomiek edukien %45a zehazteko eskumena dute. Oraingo aldaketek estatu espainiarrari dagokion %55a baino gehiago eskatzen dute, autonomien kaltetan, eta hori ez dutela onartuko adierazi du Unzetak.

Nafarroako Hezkuntza kontseilari Jesus Lagunak ez du curriculumaren portzentaia horretan ez du inolako arazorik ikusten. Bere esanetan, erreforma egin beharrekoa da. Nafarroaren kasuan, ez du eragin handirik izanen, lehendik egina baitaude humanitateetako aldaketa horiek. Bere ustetan "historia irakasteko moduan atzerapausorik ez da izango, baina erreferentzia historikoak berreskuratu beharra dago".

Estatuko Eskola Kontseiluko partaideen aldetik iritzi ezberdinak entzun dira erreforma dekretuaren aurrean. Hurrengo egunetan txosten bat egingo du, baina ez da eraginkorra izanen. Seguraski positiboa izango da, baina zenbait erakundetako ordezkariak agertu dituzte beraien kezak.

Hezkuntza ministroaren asmoa abenduaren 15ean dekretuak Ministro Kontseiluan onartzea da.

Ezagutza matematikoa ulertu beharrik gabe azaltzeko egina da

Manuel De Diquez



Euskarazko matrikulazioa nagusitzen ari da Nafarroan

Euskara hutsezko edo euskara ikasgai bezala duten irakaskuntza ereduak gora jarraitzen dute Nafarroan. Aurtengo matrikulazio datu ofizialen arabera, hiru urteko haurren erdia baino gehiagok hautatu du euskarazko ereduren bat. Hamar gurasotik seik egin du hautu hori.

Azken hamarkada honetan D ereduak etengabe igo da. Erdara hutsezko ereduak den Gk, aldiz, behera egin du; %65etik %40ra pasa da.

Nafarroa osoa kontuan hartuta, Gk nagusi izaten jarraitzen du. Alta, eremuka aztertuta, zonalde euskaldunetan D ereduak ia bakarra da: 3 urteko haurren %90,5 dago euskara hutsezko ereduaren matrikulaturik. Eremu mistoan %34,5 matrikulatu dira D ere-

duan, G ereduaren %13,6 baino ez da biltzararik. Lehenengo aldiz, zonalde honetan haur erdia baino gehiago (%50,7) euskara hutsezko ereduaren dabil. Eremu ez euskaldunetan, ostera, %6,3 dira D ereduak, iaz baino %0,3 gehiago. Oro har, hamarkada honetan, G ereduak 25,6 puntu galdu ditu, eta D ereduak 11,5 irabazi.

Aipatzekoa da, era berean, igoera hau jaiotze tasa behera doan unean gertatzen ari dela. Ondorioz, sare pribatuko matrikulazio kopurua jaitsi egin da, baina sare publikoan eta ikastoletan, aldiz, gora egin du.

Gizartearen hautua garbi islatzen dute datuok, baina Nafar Gobernuak ez du hori bultzatzeko inolako asmorik agertu. Aitzitik, hizkuntz politika beste bide batzuetatik eraman nahi du. Euskarari buruzko dekretu foralaren zirriborroa aurkeztu zuen, eta bertan 1994ko Euskararen Legea baino atzerakoiagoak diren neurriak proposatzen ditu. Dekretu horrekin Administrazioeko euskara arautu nahi du eta besteak beste zera ekarriko luke: eremu euskaldunetan euskararen ofizialtasuna desagertzea, eta eremu mistoan administrazioan gaztelania erabiltzea hiritarrak espreski euskara eskatzen ez badu, bederen.

Euskarari egindako eraso hauei erantzun zabala eman die Oinarriak plataformak eta nafarrek kalean.

Uztaritzeko ikastolak eta Urkila elkarteak bilkura egin zuten ikastolaren egoera latzaz mintzatzeko. Bilkura honetan izan ziren, besteak beste, hurrengo hauteskundeetan auzapez hautagaiak izango direnak. Denen lehentasuna izanen da ikastola berriaren eraikina.

Bitartean, ordea, ikastolako gurasoak kezkatuta daude. Izan ere, egun ikastola dagoen ingurua ez da batera egokia haurrentzat: kamioiak pasatzen diren bide ondoan dago, txikia da eta gelak ez daude egoki prestatuta. Egoera horrek gurasoek beste ikastetxe bat aukeratzera bultzatzen ditu. Horregatik, beharrezkoa ikusten dute lehenbailehen eraikin berria izatea. Hendaia eta Miarrizten, esaterako, lekuz aldatu ondoren, ikasle kopuruak gora egin zuen.

Uztaritzeko ikastola berriarentzat lurra aspalditik hautatua dago, baina negoziazioak ez dira oraindik hasi. Hautagaien lehentasunen artean egokirik, hurrengo hilabeteetan zein pauso ematen diren ikusi beharko da. Bien bitartean, Urkila elkarteak lanean jarraituko du ikastola berri eraikitzea lortu arte.

GAIA

Reggio Emilia

Italiatik Euskal Herrira



HIK HASIko partaideak Euskal Herritik Reggio Emiliara joandako taldearekin.

In-fan-cia Haur Hezkuntzako aldizkariak urtero antolatzen du bidaia bat herrialde bateko haur eskolak ikustera, eta aurten go apirillean Italiako Reggio Emiliara joan dira. Herri horretako udal haur eskolak bereziak dira. Malaguzzi pedagogoen pentsamenduan oinarritutako heziketa proiektua dute zutabe, hau da, haurrak da guztiaren erdigune eta herri osoa dago inplikaturik haurren heziketan. Euskal Herriko hainbat irakasle eta hezitzaile bertan izan ziren, eta baita HIK HASIko partaide diren Izaskun Madariaga, Josi Oiarbide eta Maite Saenz ere. Beraiek egin dituzten ikusitakoaren bilduma.



Josi Oiarbide eta Maite Saenz

HIK HASIko kideak

Reggio Emiliako Eskolen hezkuntza proiektuaren muina haurra da. Eskola horiek haurra erdigunean duten zerbitzuak dira, baina horrez gain, elkarriketa eta presentzia bereziki eskatzen dituzte, eta ez hezitzaileena soilik, baita familiarena ere.

Hautzaroaren alde lan asko egin dute. Hautzaroa eta zerbitzuak betidanik izan dira familien, hezitzaileen eta udal administrazioaren interesgune. Interes horren frogara da Reggio Emiliako udalak (143.000 biztanle ditu) hezkuntzara eta kulturara bideratzen duen aurrekontuaren %30a. Gaur egun 0-6 urteko haurrentzako 37 udal haur eskola daude Reggio Emilian.

"Entzute" hitza klabeetako bat da esperientzia hau bereiztu duen aukerara pedagogikoa ulertzeko eta definitzeko. Proposamenaren abiapuntua honakoa da: gutako bakoitzak, haur bakoitzak, pertsona bakoitzak balio bat duela, eta batez ere, gauzak esan ditzakeela eta esan nahi dituela. Haur bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta berezitasun horiek dira, hain justu, entzun behar direnak. Entzuketara da beste batekin elkartu ondoren sortzen den lehen jarrera, eta entzuketara hori da premisa edota elkarriketaren adierazpen modua.

Entzuketara jarrera horren ondorioz, eskola laborategi bilakatu da, ikerketa laborategi handi bat. Bertan a-

sanbladak -topaleku eta komunikazio gune bezala-, jolas libreak eta proiektu anitzen garapenak ardatz metodologikoa markatzen dute.

Haurrek ideia anitzekin has dezakete proiektu bat. Batzuetan proiektuak kasualitatez sortzen dira eta denbora laburrean garatzen dira; adibidez, egun euritsu batean sortzen den lainoaren ideiatik sortzen dena. Beste batzuetan egun edo hilabete batzuk lehenago sortzen dira lanak eta proiektuak, eta denbora asko irauten dute. Proiektu horiek haurren eta hezitzaileen edo zenbait gelatoko haurren arteko negoziazioaren ondorioz sortzen dira.

Zenbait kasutan haurrek halako gogoia izaten dute gauzak kontatzeko, non hezitzaileek ekintzen orientabidea berrikusi eta birplanteatu egin behar izaten duten ideia eta ekarpen berrietara egokitu ahal izateko. Haurrak zirkoan, amonaren etxean edo beste nonbait egon badira, zerbait ekarri badute, zerbait gertatu baldin bazaie eta abar, ideia berriak ekartzen dituzte, eta horrek egun horretarako pentsatuta zegoen lana aldatu egiten du.

Hau da Reggio Emiliako eskoletatik hartu genuen iritzia: haurrak esateko asko duen eskola biziak eta sortzaileak direla, eta batez ere, entzunak izango diren lekuak direla. Haurrek badakite beren gauzarik eta pentsamendurik hoberenak eta tentsioak adierazteko aukera izango dutela hezikuntzen aniztasunaren bidez.



Reggio Emilia: proiektu filosofiko pedagogikoa

Reggio Emiliako praktika pedagogikoa zentratzeko markoa deskribatu nahian, bertan eginiko topaketan aurkezpenean Carla Rinaldi pedagogoak emandako hitzaldiaren hainbat ideia ekarri nahi izan ditugu gogora. Carla Rinaldi Reggio Emiliako esperientziaren gidari eta partaide izan da urte askotan, proiektu honen hasierako gidaria izan zen Loris Malaguzzi pedagogo ospetsuarekin batera. Malaguzzi (1920-1994) izan zen gaur egun unibertsala den lan pedagogiko honen sortzailea. 55 urtetan zehar ikertu, esperimentatu eta burutu zituen 0-6 urteko hurrekin, gurasoekin eta hezitzaileekin erlazioan-tutako esperientziak Reggio Emilian.

Reggio Emilian beren buruari etengabe egiten dioten galdera eta erantzuten saiatzen direna hauxe da: "Nola lagun ditzakegu haurrak, eta ondorioz, gure buruak, egiten dugunari **zentzua bilatuz?**"

Haurrak etengabe ari dira hori egiten: guri begiratzen digutenean, gauza guztien zergatiak galdetzen dituztenean... Bizitzaren zentzua bilatzen ari dira, izatearen zentzua. Nor naiz? Norbanakoaren zentzua bilatzerakoan, bizitzaren zentzua ari dira bilatzen.

Nola defini daiteke galdeketa eta bilatze lan horren ondorioz, Reggio Emiliako Haur Eskoletako esperientzia? Zer da Reggio Emiliako partaidentzat eskola?

Ikerketa eta esperimentazio gunea da. Haurren esperientziari, bere bizitzaren zentzuaren bilatze bide horretan topagune bat eskaintzen dion eskola da. Haurrek eta helduek elkarrekin eraikitzen duten bilatze jarduna da, horren ondorioz garrantzi handiko balioa garatzen delarik, **partaidetzaren** balioa: familiaren partaidetza eta protagonista guztiena; ikerketa horren balioaz kontziente diren protagonisten partaidetza.

Bere identitatea etengabe bilatzen ari den eskola da. Etengabe bere buruari galderak egiten dizkion eskola. Eta hain zuzen ere, etengabeko galdeketa hori da Reggio Emiliak esperientzia pedagogiko bezala eskaintzen duena -eta eskaini nahi duena-.

Zentzuen eta esanahien bilaketa gunea da bai eskola barrua eta bai eskola inguratzen duen guztia.

Aipatu galdera horien guztien artean, bada funtsezko galdera bat, eta, beroni erantzuterakoan, hautu bat egin dute, erantzun horrek ematen baitio orijinaltasuna proiektuari. Hauxe da hasiera batean hain sinplea dirudien galdera, baina erantzunaren arabera praktika desberdinak bideratzen dituena:

Nor da, zer da haurra?

Nor da hezten ari garen eta saiakera horretan gu hezten gaituen subjektua? Zer esan nahi du "hezi" hitzak? Zein da heziketa prozesuaren betebeharra?..

Reggio Emilian badakite galdera horiek ez dituztela filosofoek bakarrik erantzun behar. Badakite hezteko betebeharra duen bakoitzak ere (irakasle, guraso...) ataka horretan jarri eta erantzun horiek bilatu beharko litzukeela bere hezitzaile lanaren zentzua eta esanahia aurkitzeko.

Garbi adierazten digute haurren kontzeptua anitza dela, ikuspegi, garai eta kultura bakoitzak haurrari buruzko **imajina/irudi** bat garatzen duela, eta imajina/irudi hori islatuko dela heziketa proiektuetan. Reggio Emilian, eta baieztapena hau probokatzailerik dela jakinda ere, **hautzaroa** existitzen ez den ideia edo premisatik abiatzen dira haurrari buruzko imajina egiterakoan.

Hautzaroa giza eraikuntza da eta gizarte bakoitzak bere hautzaroa eraikitzen du. Beraz, eraikuntza sozio-politiko eta kulturala da. Gutxi dira gaur egun eraikuntza horren abiapuntu bezala **eskubideak** aukeratzen dituzten gizarteak; ohikoagoa da beharretatik eta gabezetatik abiatzea.

Psikologiak eta pedagogiak gero eta gehiago azpimarratzen dituzte haurren beharrak, hutsuneak, gabeziak, haurrak **baduena** eta haurra **badena** azpimarratu beharrean. Haur hauskoraren imajina gailendu da, beharrez eta gabeziakz beterikoa, eman egin behar zaion haurrarena. Berari buruz guztia erabaki dezakegu helduok. Haurra pribatua da; "nire semea-alaba", "nire ikaslea da". Gizarteak erabili, ahaztu, ezkatu... egin dezakeen subjektuaren imajina gailendu da.

Loris Malaguzziri esker eraikitako esperientzia zera da: hautzaroa sub-

G

GAIA

Reggio Emilia

Italiatik Euskal Herrira

jektu politiko eta sozial moduan erreklamatu ahal izateko eta bere eskubideak adierazteko, elkarrekintzan eta haurren gaitasun eta ahalmenetan oinarritutako haurren irudia sortzea. Reggio Emilian haurraz hitz egiten denean, gizonaz eta emakumeaz hitz egiten da.

Horregatik, Reggio Emilian beste guztien artean imajina hau aukeratu dute: **haur sendo** (indartsu), **aberats eta gaitua**. Beharrak badituela ahaztu gabe, baina batez ere bere ahalmenak, errekurtsoak eta eskubideak azpimarratuz.

Haurren imajina hori aukeratu dute. Kontzienteak dira aukeraketa ez dela erraza, erabakitakoaren ardura hartzea eskatzen duela eta zalantza berriekin bizitzeko ausardia dakarrela berarekin. Aukeraketa horrek zera esan nahi du: helduekin batera eta helduen laguntzarekin bere bizitzaren eta horren zentzuaren bilatze lanaren protagonista eta eraikitzailea den haurren eskubideen defentsa.

Indartsua esaten dutenean, kuriositateak ematen dion indarrak ari dira, zergatiak galdetzean adierazten duen indarrak, dakiena eta jakin nahi duenaren indarrak, harridurarako indarrak...

Sendoa diotenean, helduak probokatzeaz ari dira. Ikasteko eta munduarekin harremanetan jartzeko daukan alde aurretiko jarreraz, bizitzaren lehen unetik eta lehenagotik daukan jarrera horretaz. Sendoa erlazioan, interakzioan, bere buruarekin, mundua eraikitzen duen bitartean, eraikitzeko duen gaitasunagatik...

Aberatsa eta gaitua da, teoriak eraikitzeko gai delako.

Zenbaitetan haurren teoria horiek helduoi barrea eragiten diguten mun-

duaren interpretazioak dira. Diziplina eta programekin zuzendu behar diren teoriak dira.

Reggio Emiliako ikuspuntutik, haurren teoriak errealitatearen interpretazio zoragarriak dira. Egia da helduok eraiki ditugun esanahien jabe egin behar dutela, baina nola egin behar dute hori? Zenbat eta zenbat umildu izan ditugu haurrak! Inguruan dituen gauzen eta fenomenoaren zentzua bilatzeko legitimatuak izan behar dute; euriaren, haizearen, pozaren... zentzua bilatzeko legitimatuak izan behar dute.

Zergatik egiten du euria? "ETBko eguraldiaren gizonak esan duelako". Erantzun horren aurrean barre egin dezakegu eta hori horrela ez dela esan dezaikegu. Edo pentsatzen hasi eta harritu egin gaitzke hain adin txikiko haur batek bere buruari galderak egiten dizkiolako eta hainbat tokitatik informazioa jasoz teoria bat sortuz erantzuteko gai delako.

Horregatik azpimarratzen dute **gaitua** hitza.

Zer egin beharko luke helduak



Reggio Emiliako eskolako hainbat irudi.

haurren gaitasun horren aurrean? Haurri erantzun "zuzena" eman ala haurri bere erantzuna bila dezan utzi? Bere erantzuna adieraz dezan utzi, bere teoria adierazten utzi eta beste teoria batzuekin aurrez aurre jartzen utzi... Irakaskuntza apendizaiaren iturria al da? Ala alderantziz?



na: neska-mutila, hots, humanitatearen esentzia bere desberdintasunean eta bere desberdintasunaren balioan. Guk daukagun eta ezagutzen dugun balioa, adierazteko zaila zaigun balioa. Haur bakarra izate horrek zera esan nahi du: burmuinaren bakartasuna, ezagutzeko eraren bakartasuna, ikasteko eraren bakartasuna... Gizaki bakoitzak bakartasun hori adierazten du.

Reggio Emilian apendizaiaren oinarrizko dira. Horrek ez du irakaskuntza baztertzen, apendizaiaren prozesuaren parte baita.

Haur hezkuntzari dagokionez, tradizioz hezkuntza hori sinplifikatzailea izan dela diote. Harrokeria kultural batetik sortutako haurren imajinari omen dagokio sinplifikatze hori. Eta jarrera horren aurrean haurri konplexutasuna proposatzearen aldeko apustu garbia egiten dute.

Haur aberatsa, sendoa eta gaitua. Balio eta eskubideduna.

Elkartasuna, baikortasuna, ausardia, nahia, ametsa... bezalako balioak dituena. Baina, bada Reggio Emilian bereziki azpimarratzen duten balio bat: bere **bakartasuna**, gure bakartasuna. Egunero gure aurrean jartzen zaigun gizaki horren identitatea. Izaki **bakar** horrekiko dugun erantzukizua:

Sormena emakume eta gizonezko bakoitzarengan egon daitekeela diote, baina horretarako behar-beharrezkoa da sormen hori norbanako bakoitzari onartzea.

Apendizaiaren askatasuna eta eskubidea defendatzen dituzte, garbi adieraziz burmuin bakoitza bakarra bada, apendizai bakoitza eta apendizai ekintza bakoitza ekintza sortzaile bat dela. Ideia horietan oinarritzen dute beren ikerketaren ardatza.

Bakartasun hori **entzun** egin behar dugu hezitzaileok. Aditzik garrantzitsuenak, Loris Malaguzziren esanetan, **ekin eta entzun** dira.

Entzutearen pedagogia proposatzen dute. Zentzu guztiarekin entzutea; nahia, desio eta kuriositatearekin en-

tzutea. Besteari entzuteko prest egotea proposatzen dute, bestearen zain egotea, guri esateko zerbait garrantzitsua duela pentsatzen dutelako. Besteak esandakoari balioa ematen diote, ados egon ala ez.

Komunikazioa, mezua, guztien artean sortzen dute, hitz egiten duenaren eta entzuten dutenen artean. Horixe da beraien ustetan haurrek eskatzen dutena, entzunak izatea, bere izana lejitimatzeko duen entzuketa, ezagutzan aurreratzea ahalbideratuko dion entzuketa. Ideiak adierazten direnean finkatu egiten dira eta adierazte nahi eta behar prozesu horretan kokatzen dituzte **haurren ehun hizkuntzak**, besteekin eta bere buruarekin izandako topaketetan sortzen diren ehun, mila, ehun mila hizkuntza; ehun, mila, ehun mila adierazpen. Adierazpen horiek guztiak dira irakasle eta helduok entzun beharko genituzkeenak Reggio Emiliako proposamenaren arabera.

Inork ez dio haurri ezagutzeko eta bizitzeko desioa erakutsi behar, berez baitauka. Inork ez dio erakutsi behar haurri ibiltzen, hitz egiten, maitatzen, amets egiten... badaki, eta egin egiten du. Testuinguru erreala eta metaforikoak sortu behar ditugu haurrak ehun hizkuntzak bizi eta erai ki dituzan. Hitz egiteko, maitatzeko, amets egiteko ehun era. Bere sentipenak eta emozioak adierazi eta kontatuz, ezagutzen duena deskubritzen dugu. Kontatzen ari den bitartean bere burua kontatzen du, ezagutzen ari da eta bere burua ezagutzen ari da. Bere burua hizkuntza anitzen bidez eraikitzen du.

Kontuz, haurrak ezagutzeko duen desioa itzali gabe. Munduarekin komunikatzeko duen desioa itzali gabe. Komunikazio teknikak eta baliabideak ez baitira xede, bitarteko baizik.



Proiektuen adibideak

Sarreran adierazi dugun bezala, Reggio Emiliako Haur Hezkuntzako eskoletan proiektu desberdinak garatuz egiten dute lana, Euskal Herriko hainbat eskoletan bezala.

Halere, aipatu proiektuak garatzeko egiten duten ibilbidea, erabiltzen dituzten estrategiak, etengabe egiten dituzten balorazio eta zuzenketak beren praktikan hain ikertuta eta errota daudenez, proiektu baten adibidea ekarri nahi izan dugu orri hauetara.

Proiektuen sorrera edo abiapuntua ezberdina izan daiteke:

- Asanbladan botatako ideia batetik hartua.

- Eskolako bizitzan sor daitekeen egoera zehatz batetik abiatua: eskolan urik gabe geratu dira matxura bat dela medio, eta horren ondorioz uraren erabilera eta garrantziaren inguruko proiektu bat sortu da.

- Eskolak (pedagogoak, taileristak, laguntzaileak, irakasleak...) talde guztiarentzat proposatutako gai baten inguruan; adibidez, herriko eskulturak.

- Udaletxeko hezkuntza batzordeak eskola guztiei proposatutako gaiak; adibidez, hiria.

Proiektu guztiek ez dute zergatik iraupen berdinekoak izan behar. Eta partaideei dagokienez ere, batzuk haur talde batek bakarrik garatzen ditu, beste batzuk talde osoak (nahiz gelako, nahiz zikloko) eta beste batzuk eskoa mailan garatzen dira.

Taldea txiki batetik sortutako proiektu bat orokor daiteke baldin eta beste taldeek horixe bera garatzea eskatzen badute. Zentzu horretan, bereizi egiten dituzte eta kontuan hartu

behetik gora hedatzen diren proiektuak eta goitik behera planteatzen direnak.

Hasieran aipatu dugun bezala, Reggio Emiliak proiektuaren esku hartzeari dagokionean ibilbideak eta estrategiak oso zehaztuta ditu. Haste-ko, proiektuak talde lana bezala ulertzen dira, "eskola guztiaren artean egiten baita". Talde horretan, hurrekin batera eskolako pertsonal guztiak hartzen du parte: irakasleak, sukaldariak, taileristak, garbitzaileak... Beraz, elementu guztien arteko etengabeko komunikazioa markoa sortzen da.

Behetik sortzen diren proiektuen ibilbide posible bat:

Irakasleak hurrek jaulkitako hainbat teoria eta hipotesi jasotzen ditu eta alderdi bat/batzuren inguruko proiektuaren posibilitatea sortzen da. Posibilitate horrekin, gauza oso sinple bat egin daiteke, hala nola, hurrek ideia horri buruz pentsatzen dutena idatziz bildu eta marrazkiz hornituz bere horretan bukatu. Bukaera hauek hartzen duten formatua oso estetikoa, oso landua izaten da (protagonista guztiak kontuan hartu eta egileak taldean aipatzen/marrazten dira, euskarriaren estetika zaintzen da, material desberdinak erabiltzen dira...).

Katuen proiektua.

Proiektu sinple baten adibidea.

Irakasleak edo taileristak ideia gehiago garatzeko aukera ikusten bada, hezitzaileen taldean aurkezten da eta guztien artean proiektuaren jarraitpenerako baldintzak jartzen hasten dira.

Lehen pausoa, sarritan, gaiaren inguruko mapa kontzeptualaren erakuntza izaten da. Mapa osatzerakoan, hezitzaileek, aurreko esperientzietan, beraien ezagutzan eta hurrek ekarri dituzten ideietan oinarritzen dira, jakinda, proiektua aurrera doan heinean, alde aurretik ezarritako mapa alda daitekeela.

Lan hau burutuz, helburu bat/batzuk ezartzen dira. Neurri batean bukaerako produktua nola izan daitekeen zehazten da, noski, malgutasunez eta aldakortasunaren ideiarekin.

Ondoren, haurrengana jotzen dute. Hurrei proiektua aurkezten zaie atalka edota osotasunean. Hori proiektuaren konplexutasunaren araberakoa izango da. Horren inguruan elkarrizketak garatzen dira eta ondorioz ikerketa bultzatzen da. Eta irakasleak era sistematikoan biltzen du hurrek aportatzen duten guztia eta proiektuaren garapenean egiten dituzten pauso guztiak: hurren teoriak transkribitu, proiektuan zehar egingako jarduerak argazki bidez dokumentatu...

Material grafiko/idatzizko hau guztia bi helbururekin biltzen dute:

- Hezitzaile taldeak beraiek deitutako "helduen geldiuonetan" ikusi eta aztertzeko. Helduek, hurren ekarpenen (aurreiritziak, ezagutzak, bizipenak, etxean eduki ditzaketan baliabideak...) arabera, hainbat geldiuone egiten dituzte. Geldiuneak proiektua berbideratzeko, egokitzeko, beharrezkoa bada hasierako planteamentua hausteko... erabiltzen dituzte.

- Proiektua bukatu ondoren honen inguruko prozesua agertzeko editatzen dituzten aldizkariak osatzeko.

Katuaren adibidea

Gure katuari guri hankak igurtzitzea gustatzen zaio, akaso urruma egin nahi duelako izango da, eta akaso mi-moak egietan nahi duelako.

Maite-maite egindakoan leun-leunak dira, super leunak dira... artilea bezalako beroak... Katu bati maite-maite egiten zaionean katuen politasuna sentitzen da.

Katuak sabelean jaiotzen dira... maitemintzeko oso zarata arraroa egiten dute, nik entzun egn nien eta.

Katuek pentsatu egiten dute burmuin onak dituztelako. Pentsatzen daudenean geldi-geldi egoten dira, ez dira batere mugitzen. Katu amak bere katakumeei begiratzen dienean pentsatzen du: "Zein katakume politikak ditudan!".



Zaldia proiektua (cavalli)



Reggio Emiliako eskolako hainbat irudi.

Hiria proiektua

Hiriaren proiektua udaletzeko batzorde pedagogikoak hiriko eskola guztiei proposatutako proiektua zen, baina eskola bakoitzak autonomia osoa zuen gaia bideratzeko momentuan.

Horrelako proiektuaren zergatia agertzerakoan, hona hemen Karla Rinaldik esandako hitzak:

"Zergatik egin hiriaren inguruko ikerketa bat?"

Hemen zaudeten lankide askok nik baino hobeto argudia zenezakete zer esan nahi duen hiriaren gaiak lantzeak, hiriari buruzko ikerketa lan bat

egiteak. Badakigu italiar hiri asko, eta baita europarrak ere, hasi direla haurrek hiriarekiko duten harremanaren inguruko proiektuak lantzen. Beraien hirian zerk ez zuen guztiz ondo funtzionatzen galdetu diete haurrei. Esperientzia hauek benetan oso onak dira, guztiz interesgarriak (Francesco Tonucci-ren "Fano, haurren hiria"ri egiten dio erreferentzia).

Dena den, guk beste bide bat hautatu dugu eta espiritu horrekin ezagutarazi nahi dizuegu. Haurrei ez diegu eskatu berriz hiria diseinatzeke, zerbait gehitzeko baizik. Ez genuen nahi zerk funtzionatzen zuen gaizki esatea

soilik, baizik eta gaur egungo hiria hobeto ulertzen saiatzea eta zentzua ematen laguntzea zerbitzuen hiriaren eta hiritarren hiriaren arteko eztabaidan.

Horretarako, haurrak elkarriketatu ditugu eta hurrekin hitz egin dugu hiritar bezala harturik. Beraien bizipenak kontatzeko eskatu diegu, baina baita gurekin batera hiria bizitzeko ere hiriko hainbat lekuren esanahia beren bizipenen eta beren esanahi propioen arabera eraiki dezaten".

Gai honen inguruan Balducci eskolako esperientzia konkretu baten garapena ezagutu ahal izan genuen.

Aipatutako Balducci eskola hiriko periferian zegoenez, talde pedagogikoak erabaki zuen lehenengo puntu bezala hiriaren zentroa lantzea. Proiektuaren lehen mapa kontzeptualean zentro historikoan kokatuta-

ko "Piazza del Duomo" eta periferiazentroa kontzeptua lantzea deliberatu zuten, beraien auzotik zentrorajoa-terako aukerak aztertzea eta zentrorairteera bat egitea planteatu zuten.

Gaiarekin haurrengana joan zirenean, irakasleak elkarriketa bat bul-tzatu zuten:

- Joaten al zarete gurasoekin Reggio Emiliako zentrorra?
- Zer egiten duzue?

- Nora joaten zarete normalean?
- Zein da gehien gustatzen zaizuen lekua?...

Elkarriketak idatziz bildu ondoren, helduen taldea konturatu zen haur gehienek aipatzen zuten lekua herriko plaza nagusia zela, Piazza del Duomo. Hasierako mapa kontzeptualean azaltzen zenez, nola ez, garapenaren abiapuntua gunehori izatea erabaki zuten. Eta beste informazioerik

Reggio Emilia

Italiatik Euskal Herrira

G A I A

G



landu gabe, lehen lana haurrei plaza horren marrazkia eskatzea izan zen, bakoitzak plazarekiko zituen aurre ezagutza/bizipenak isla zitzen. Grafikoki egindako lan horren zentzua hitzen bidez esandako ideien eta hipotesien errefortzua izatearena zen.

Aipatu marrazkiak arkatzez eginkoak behar zuten izan eta kolorea erabili gabe. Printzipioz hori haurren adierazpena mugatzea dela pentsa badaiteke ere, badu beraiantzat funtzionaltasun bat: txuri-beltzeko marrazkiak behar adina aldiz fotokopia daitezke eta proiektuaren garapenean zehar zenbait unetan marrazki haue-tako hainbat elementu islatuz, konposatuz, konparatuz... erabil daitezke, hala behar izanez gero (kasu horretan marrazki horiek elementu zentrala eta errepikaria definitzeko eta elementu horren itxura eta proportzioak konparatu eta aztertzeko soilik erabili zituzten).

Haurren batek, halere, marrazkia koloreztatu nahi izanez gero, fotokopia ematen zioten eta bertan margo zezakeen.

Haurren marrazkiak helduen taldean aztertu ondoren, argi eta garbi identifikatu ahal izan zuten marrazki guztietan azaltzen zen elementua, hau da, plazan dagoen estatua erraldoia. Elementu horri helduz, eta haurrei guztiek margotu zutela adierazi ondoren, estatuari buruz zer pentsatzen zuten galdetu zieten, haurren teoriak abiarazi zituztelarik:

- "Plazan txori asko dagoenez, bertan txoriei jaten ematen zien gizon bat ibiltzen zen, eta esker onez estatua bat egin zioten"

- "San Prospero da bere deitura eta bere izena" "Estatua. Zuri ez dizute (estatuarik) egingo zeren eta garrantzitsua izateko "Estatua" izena eduki behar duzu".

- ...

Plazako estatua horri buruzko teo-


riak berriro ere helduen artean aztertu ondoren, haur baten hausnarketa hartu zuten proiektuari bide berria irekitzeko:

"Estatua beti-beti dago han, eta joaten bagara ikusiko dugu. Eta nik badakit joaten, nire aitak mapa bat baduelako..."

Mapa aitzakia bezala harturik, maparen inguruko teoriak garatzea otu zitzairen. Interakzio desberdinen ondorioz (luze joko luke guztiak deskribatzea), mapa desberdinen inguruko lana garatu zuten, mapen tipologia txiki bat landuz: ibilbidea, bidezidorrak, altxorren mapa...

Helduek ez zieten dokumentazio-rik eskaini haurren motibazioa eta beharra suspertu aurretik. Dokumentazioa ondoren dator, hainbat iritzi, aurrezagupen eta teoria elkarjarri ondoren erasten diren elementuekin: hiriko planoak, argazkiak, autobusen ibilbideak... Gurasoei gehitu ditzaketen elementuak eskatu egiten zaizkie.

Dokumentazioa aztertu ondoren erabaki bat hartu zuten: guztien arte-



an pentsatu, eztabaidatu eta eraikitako plano bat egitea. Hots, eskolatik hiriaren erdiguneraino bidea azalduko zuen planoaren eraikuntza lana garatzea. Irudikatu ondoren, ibilbidea gauzatu egingo zen, ESTATUA aurkitzeko irteera egingo zen.

Orain arte deskribatutako prozesu honen guztiaren argazkiak eta ahozko ekoizpenak bildu zituzten eta ikusi ahal izan genuen bezala, plazara iritsi zirenean ikusgarria izan zen haurren aurpegietako zirrara, estatuaren berdeskubritze une horretan adierazi zutena.

Prozesuen dokumentazioari garrantzi handia ematen diete, argazki, grabazio nahiz idatziko testuei, bai proiektuaren -prozesu bezala ulertuta- zentzua argitzeko baliabide bezala, bai sintesi eta autoebaluziorako tresna eraginkorra den neurrian. Beraien dioten bezala: "Memoria irteeretan/garapenetan sortzen diren irudiek eusten dute".

Estatupean zeudela, sintesi lanari ekin zioten:

- Nola izena du? "Estatua deitzen da, ez al dakizu hala?"

- Nor da? "San Prospero da, txoriei jaten ematen diena"

- Zenbat denbora da hemen dagoela?

- Zertarako balio du?

- Nork egin du?

- Zerbait eskatu edo esan al genezake?

- Zer egiten du gauzez?

- ...

Hainbat talderekin egun desberdinetan egindako irteeretan plaza ez zegoen berdin. Adibidez, astean behin plaza horretan azoka ibiltaria jartzen dute. Ondorioz, azoka egunean bisitatu zuen taldeak plazaren ikuspegi

desberdina landu zuen. Horrela, plaza angelu desberdinetatik aztertzeko parada izan zuten. Haurren begi aurrean azaltzen diren testuinguru guztiak izan daitezke apendizaiia testuinguruak, eta honela egoera bakoitzak apendizaiia desberdinak garatzeko aukerak eskaintzen ditu. Adibidez, azoka egunak beste gauza askoren artean, noski, pertsonen arteko harreman eta elkarrizketei buruzko ideia eta hipotesiak lantzeko parada eskaini zien.

Eskolara bueltatutakoan, irteeran zehar ateratako diapositiben proiektzioa burutu zuten, eta ondoren hasieran egin zuten marrazkia bueltatu zieten haurrei. Fase honetan, autoebaluzioa bultzatzen dute.

"Nik ez nituen plazan zeuden etxe guztiak margotu..."

"Benetako plaza egiteko ezin da guk marrazkian egin genuen bezala egin, etxeak zutik jarri behar dira..."

Irakasleak bigarren ideari heldu

eta plazaren maketa egitea proposatzen die: possiamo contruire la piazza del Duomo... ("Moztea bizitza ematea da, irudi bati plano tridimentsionala ematea da").

Talde bakoitzak planteamendu eta material desberdinak (papera, kartoa, buztina... erabili zituen, eta horren arabera arazo eta kontraesan desberdinak (estatuaren kokapena, plazaren sarbidearen arabera, proportzioak, plazara ematen zuten etxeen atzeko aldea nola ikusi eta adierazi, plazan elkartzen ziren kaleen trazatua...) aurkitu zituzten guztien artean konpontzeko.

Esan bezala, lan horiek guztiak behar bezala dokumentatuta azken formatu desberdinak eduki ditzakete. Zenbait eskoletan urte osoko lanak urtekari batean jaso izan dituzte. Besteetan, gure aurrean aurkeztu zutena bezala, dokumentazio horrek hitzaldi bat ilustratzeko balio izan dezake. Beste batzuetan, bi edo hiru orritako lan labur bezala auzketzen ditute haurrek etxean... Baina beti haurren ideiak dira ardatza, haurren hipotesiak eta egindako bidean horiekiko izan dituen kontraste eta bizipenak dira garrantzia dutenak.

Ikus daitekeen bezala, proiektuak "amaitezinak", luzeak, motzak, zabalak, puntualak izan daitezke.



Atal honetan agertzen diren argazkiak Reggio Emiliako bidaitik ekarritakoak dira.

Reggio Emiliako bidaiari buruzko iritziak

Mari Karmen Herraiz

Ortuellako PATeko aholkularia



Bitidanik pentsatu izan dut ideiak, esperientziak, proiektuak eta abar elkartrukatzea dela ikasteko modurik egokiena, eta elkartruke hori in situ egiten bada, giroa eta protagonistak ikusiz, ikasketa hori askoz aberatsagoa izaten dela. Horregatik, Reggio Emiliako bidaiak Haur Hezkuntzako geletan egiten duten lana hobeto ikusteko, entzuteko eta sentitzeko aukera eskaintzen zuten.

Maletak egin bitartean guztiz bete gabe uztea pentsatu nuen, eta ideia, material eta proiektuz beteta etortzea, gero nik lana egiten dudan inguruneke irakasleei eskaini ahal izateko.

PATeko egoitza goitik behera miatu nuen bideo kamara egoki baten bila, argazki kamara bat hartu nuen eta diapositiba nahiz argazki andana bat ere bai.

Izugarria iruditzen zitzaidan berriz ere duela urte batzuk beste eskola batzuetako bidaian ezagututako jendearekin elkartzea.

Eta azkenik, zonalde italiar hura ezagutzeko aukera hutsa erabat erakargarria zen.

Horrenbestez, bidaiak emozioz eta espektatiba handiz bete ikusten nuen. Hatik, espektatiba haiek etxetik ateratzeko unetik bertatik desagertzen hasi ziren: ez nuen argazki kamara egokirik aurkitu; taldea nik uste baino handiagoa zen, eta ondorioz, iritziak lagunartean eta lasaitasunez elkartrukatzeke aukera galtzen zen; Reggiora euritan iritsi ginen; Reggio Children-eko ordezkariekin izan genituen lehen bileretan filmatzea eta argazkiak ateratzea debekatu egin ziguten; eta hori guzti balitz, ordaindu egin behar zen hango eskolak ikusteagatik eta beraiei entzuteagatik.

Itzulerako lehen hegazkina hartzeko eta guztiaz ahazteko gogoia eman zidan, baina ez nuen horretarako indarririk izan. Gauzak horrela, hoberena egoerari etekina ateratzea zela pentsatu nuen.

Horrela, bideo kamara irudiak grabatzeko bitarteko bat zela kontsideratu nuen, baina burmuinak eta zentzuek funtzio hori bete dezaketela. Zentzuak dira, hain zuzen ere, gela bateko ateak pasa ondoren "mozkortuta" gelditzen direnak.

Hortik printzipio bat ondorioztatzen nuen: "ikusitako eta sentitzen nuen guztiarekin ez mozkortzea". Garrantzitsua zen aztertzeke eta hausnartzeko datuak hartzen ahalegintzea, baina konparaketarik egin gabe beste eskoletako lanak ez gogogabeteke eta bideraz ez bihurtzeko.

Sentitzen nuen guztiari irekia nengoen egoera bakoitza bere testuinguruan aztertuz.

Azkenik, profesionalki hain interesgarria zen jendearekin topatzeko aukera ahalik eta gehien aprobeztatu nahi nuen, nahiz eta talde txikiagoa izanik sortzen den erlazio mota ez lortu.

Hausnarketa horiek eskola bizitzako alderdi interesgarriak aurkitzen lagundu zidaten, hau da, heziketaren filosofiako alderdiak eta hori praktikan ezartzearenak.

Guztia kontuan harturik, zera azpimarratuko nuke:

- Haur eskola osatzen duten pertsona heldu guztiak argi eta garbi daukatela haurra jarduteko eta sortzeko "gai" dela.

- Ezagutza "auto-sozioeraikuntza" prozesua dela, benetako eta egiazko erakuntza ekintza (Carla Rinaldi).

- Helduaren papera "besteari eta hark esaten duenari irekia egotea da, zentzu guztiarekin milaka hizkuntzaren etengabeko entzuketara". Horrek jasotzea, entzutea, babestea, baloratzea eta interpretatzea esan nahi du.

- Hauraren mundua osatzen duten heldu guztien arteko harreman eta elkartrukea (familia, komunitateko ordezkariak, hezitzaileak, eskolako langile ez-irakasleak...).

- Indibiduoaren eta giroaren garrantzia, eta bien arteko ulermenaren eta batasunaren etengabeko bilaketa.

Uste horiek honako gauzetan islatuta ikusi nituen:

- Hezitzaile bakoitzak bere praktikari buruz egin zezakeen defentsan eta oinarri

teorikoetan.

- Haur guztienganako errespetua eta entzuketara, eta idazten zuten guztiaren gainean egiten zuten etengabeko hausnarketa.

- Helduen astia.

- Espazioaren, materialen eta proposamenen antolaketa, guztiak zentzumenak hunkitzera eta piztera bideratuta, eta ekiteko, esperimentatzeko eta probatzeko animatzera zuzenduta.

- Elementu naturalak protagonista ziren proposamenen aurkezpena. Beraue-tan argiak, itzalak, koloreak eta bolumenak gauza bakar batean alderdi asko erakusten zituzten. Horrek arreta galarazten zuten berriz beste plano batean kokaraziz. Aukera berrien etengabeko bilaketa zen.

Azken puntu horretan Eskola Berdeak eta Birziklatze Zentroa daudela azpimarratu behar da. Birziklatze Zentroa 1996an sortu zen kultur mundua eskola munduarekin harremanetan jartzeko asmoz, eta balio ekologikoen, etikoen, hezitzaileen, estetikoaren eta ekonomikoaren defentsan apustu eginez.

Reggio Children-eko Lagunen Elkar-teak kudeatzen du. Mota guztiarekin materialak hartzen dira eta erabilera estetikoak, funtzionalak edo sortzaileak emateko antolatzen dira.

Zentro honek ekologia bizitzeko modu berri bat adierazten du desegindako materialak baloratuz eta produktu sortzaileak eta komunikatzaileak sortzeko berreskuratuz. Objektua, ingurumena eta gizakia errespetatuko dituen filosofia bilatzen saiatzen da.

Idea edota materialen bila jo daiteke zentro horretara eta doakoa da. Horrek gizarte talde askoren inplikazioa esan nahi du (udala, enpresak, kooperatibak, eskola...).

Bestalde, eskola berdeek nekazari guneetan dute jatorria. Han familiak kontaktua gehiago dute naturarekin, ekonomikoki naturaren menpe baitzeuden.

Familia horien bizitza jasotzeaz, aintzat hartzeaz eta beronengandik ikasteaz arduratzen da eskola Eskola bizitzaren oinarriko helburuak naturaren azterketa, errespetua eta ingurumenaren zainketa dira.

Gizakia eta naturaren arteko orekaren etengabeko bilaketa da.

G

GAITIA

Reggio Emilia

Italiatik Euskal Herrira

Kristina Elorza

Bilboko CEI-ICD



Bisitatu nituen eskoletan zentzumenak esnatu eta ia blokeatu egin zitzaizkidan hainbeste estimulu jaso ondoren. Eskola batzuetan janari goxoa eskaintzen zигuten, beste batean usainez beteta zegoen tailerra, geletan musika lasaia edo naturan grabatutako hotsak entzuten ziren, eta bisitatutako egoitza guztietan hormak, sabaiak, mahai luzeak eta bazter guztiak kolore biziz betetako irudiz eta egitura desberdineko material deigarritz apainduta ageri ziren.

Diseinatutako materiala eta espazioak, dokumentazio panelak, apaingarriak, argiak eta haurren produzioak edonon ikustea (pasabideak eta komunak ere tailerrak bihurtzen dituzte) harritzekoa zen benetan. Beraz, zentzu eta sentsazioz betetako bisitaldia izan zen.

Estetikaren garrantzi horrek zerikusi handia dauka bertako langileek haurrari buruz duten iritziarekin. Carla Rinaldiren esanetan, haur indartsua nahi dute, esku-bide eta baliaduna. Horrexegatik zaintzen dira garbiketa eta ordena, alaitasuna eta estimulu aberatsak, haurren lengoaien fruitu bezala sortutako irudi eta bolumenak... eskolak haurraren kiko landu nahi duen errespetuaren ondorio bezala. Horrela ez balitz bolatxo, gardenki eta bi-

txikerien artean galduko ginateteke Reggio Emiliako eskoletan. Irudi eta usainetan murgilduta galduko ginateteke etikari bere lekua aurkituko ez bagenio.

Ekarpen horiek guztiak gure eskoletarako ere baliagarriak izan daitezke. Aipatzekoa da nola zaintzen ziren sarrerako espazioak, gurasoekin informazioa elkartrukatzeko aukerak, material guztiz pertsonalizatuak eta eguneratuak, edozein etxetan erabiltzen diren altzariz atondutako txoko goxoak, pertsona heldu guztien arteko koordinazioa, eskolan dauden kultura desberdinetako erreferentziak guztien eskuetan jartzea eta abar.

Adituen hitz potoloak entzun eta gero, haur eskoletan irakasle gogotsuak eta guraso arduratsuak aurkitu genituen espazioak partekatzen. Denen artean diseinatutako eta betetako topaguneak informazio, formazio eta elkartrukea errazteko eskaintzaz beteak zeuden. Hor agertzen ziren etikaren printzipioak: agurtzea, erakusketetan, ospakizunetan, Somaliatik etorritako ama batek bere hizkuntza ipuin bat kontatzeko antolatutako saioa eta abar.

Sentipenak eta emozioak azaltzeko ere leku bat eskaini behar du eskolak. Norberak bere buruarekiko errespetua aintzat hartzen badu, eta bere gogo eta beldurrei erantzuna aurkitzen badie taldean mundua ezagutzeko galderak zabalduz, kultura desberdinak kontuan izanez eta eskolan elkartasuna bultzatuz, estetikarekin batera eraikitzen den etika sortzen da. Reggio Emiliako eskoletan, erakusketa zoragarriak alde batera utzita, haurren nahiak eta afektuak abiapuntutzat hartzeko prest dauden irakasleak aurkitu nahi genituen. Halere, ez genuen izan horretan sakontzeko aukerarik.

Egitura argi bat daukate definituta, bai eskoletak eguneroko dinamikan eta bai hirian udaletxearekin eta Reggio Children Fundazioarekin. Espazioa, denbora eta arduren banaketa horretan, haurrak eta irakasleak ez dira galtzen, oso argi definituta baitaude bakoitzaren zereginak eta

zer-nolako emaitzak bilatzen diren. Kanpotik ikusita, biribilegia iruditzen zait, itxiegia.

Ez genuen astirik izan euren formazio prozesua zehatz-mehatz ezagutzeko. Udalek pedagogoak eta psikologoak kontratatzen ditu; horiek udaleko Osasun Zerbitzuarekin koordinazioan lan egiten dute eta eskoletak beharrei erantzuten diete.

Baina irakasleen prestakuntza Reggio Children Fundazioaren eskuetan dago. Bere helburuak prestakuntza, ikerketa, aholkularitza, erakusketak eta argitalpenak dira.


Amaitzeko, zer azpimarratuko nuke?

Alde batetik, hemen bezala, eskaintzen diren plazak ez direla nahikoa dagoen eskaerari erantzuteko. Gizartea-familiak eta administrazioak barne-bere haur txikienez zelako zentro mota behar duen definitzen ari da: jaioberriak nork eta nola zaindu, jantokiak eta arratsaldeko ordutegiaren luzapenak nola antolatu eta abar.

Beste alde batetik, bisitatu nuen Gulliver udal eskolan irakaslea astelehenero elkartzen da tailerreko arduradunarekin eta sukaldariarekin astea antolatzeko. Giroa hirugarren hezitzailea dela esaten dute, irakasleon lana hausnarketarako eta elkartrukearako testuingurua erraztea dela uste dute.

Horixe azpimarratuko nuke; galderen bidez ikasten dela, gure hezitzaile lanari buruzko erantzunak lan taldean bilatuz eta haurrek azaltzen dizkiguten galderari adi egonez.

Penagarria izan zen irakasle saiatu horiekin eztabaidarako aukerarik ez izatea. Asko ikasi nuen haiekin eta hainbeste galdera gelditu ziren egiteke.... Hor dago galderak, galderetan, ez erantzunetan.



Koldo Valencia, Mari Asun El Busto eta Eva Mendia

Atarrabiako Ama-Lur haur eskolako irakasleak



Atarrabiako Ama Lur Haur Eskolako hiru langile gara, bi hezitzaile eta tailerista bat. Historia pixka bat eginenez, gure eskolak transferentzia anitz jasan eta gero, bertako udal langileak izatera pasa ginen. Horrekin batera, Loris Malaguzziren hezkuntza filosofia berriaren teoria ezagutu genuen Alfredo Hoyuelosen eskutik. Hezitzaileok jada bikoteka lan egiten bagenuen ere, filosofia horretan oinarriturik, eskolan aldaketa asko egin ziren; giroaren berrikuntza (altzariak, materialak, espazioak eta abar estetikoki birplanteatu), argazkilaritza laborategia eskolan ipini, haurren prozesuak dokumentatu, tailerista eta tailerra eskolan txertatu, eskola berri-tzen mantentzeko pertsona eta leku berritzaile bezala, besteak beste.

Ondoren, euskal lerroaren ezarpenarekin batera, Iruñeko Haur Eskoletan arituak zirelako Malaguzziren proiektua ezaguna zuten hezitzaileak hasi ziren lanean gure eskolan.

Amaitzeko, pasa den urtean tailerista lanpostua Arte Ederretan lizen-tziatutako batek bereganatu zuen, tailerista lanpostua eskolan sendotuz.

Hau guztia azaldu nahi izan dizuegu geure eskolaren egoera berezia ulertarazteko. Udalak eta lankideek Reggio Emiliara joateko aukera eskaini zigutenean, oso helburu zehatzak finkatu genituen: bertako eskoletako giro bereziak, proiektuetan oinarritutako heziketa, eta tailerra eta taileristaren funtzionamenduaren zehazpenak behatzea.

Puntu horiek garatu baino lehen, aipatu beharra dago Reggio Emiliako eskolak ekosistema gisara ingurune-

an txertatuak daudela, ingurumenarekiko begirunea dutela, eta familiak eta gizartea orokorrean eskolako filosofian inplikatzen dituztela.

Giroa

Giroa hirugarren hezitzaile da, sentsazio anitz eskaintzen dituena, autonomia eta talde harremanak ahalbidetu behar dituen eskola estetika-

ren barruan.

Kurtso hasieran egiten den lehen-dabiziko gauza hurrei txokoak eza-gutzen laguntzea da; batetik, hurrei konfiantza emateko, eta bestetik, txokoak nola erabili behar diren ezagutarazteko. Txoko bakoitza ekintza irekiak baina konkretuak garatzeko pentsatuta dago, hots, ezin da edozein ekintza edonon garatu, horretarako prest dagoen txokoa baizik.

Hezitzaileek txokoen erabilerak behatu behar dituzte, eta ikusitakoaren arabera taileristaren laguntzaz aldatu edo egokitu.

Haurrak bere burua ziur sentituz gero, ez du heldua baztertzeko, onartu eta bere zaletasunak erakutsi baizik.

Giroaren proiektua behin eta berri-aztertzen da, hausnartzen eta aldatzen ari den proiektua da, haur guztiak ezberdinak direnez, interes eta behar ezberdinak dituztelako. Urteak joan eta urteak etorri, helduen behaketek giroa aldarazten dute.

Nolabait esatearren, haurren autonomia giroari esker lortzen ahal da. Horrexegatik, giroak beti berraztertua eta berraztergai behar du egon.

Gelako eta eskolako gainontzeko txokoen arteko lotura (pasabideak eta abar) azpimarratzekoa iruditu zitzaigun, hurrek beren gaitasunak garatzeko leku eta txokoak zabaltzen direlako gisa horretara.

Helduendako informazioak eta berriak hormen goialdean jartzen dira, familiei eta hezitzaileei jakinarazteko. Bertan eskolan garatu diren proiektuen berri ematen da eta egun-eguneko informazioa ere bai (janariak, oharrak...).

Proiektuetan oinarritutako heziketa

Haurrekin lantzeko eredua kurtso hasieran pentsatutako proiektuetan oinarritzen da. Proiektu horiek hezitzaile eta taileristaren artean zehazten dituzte, eta haurren egunerokotasunean oinarritzen dira. Ez dira, programaketak diren moduan, linealak, mugatuak eta aurretik ezarritako helburuekin. Programaketekin azken emaitzei ematen zaie garrantzia, hots, hurrek azkenean eskolak pentsatutako helburua lortzeari. Reggio Emiliako eskoletan, berriz, haurrak "nola egiten duen" azpimarratzen da, benetako garrantzia hurrek erabilitako prozedura eta estrategietan datza.

Proiektuaren saioak garatu ahala, zeharreko gaiak agertzen dira, eta hasierako proposamena aldarazten dute. Aldaketa horiek edozein momentutan gertatzen dira, haurren behaketa eta beharren arabera.

Azken finean, konplexutasuna garatzeko eredua dela esan dezakegu.

Tailerria eta tailerista

Tailerria

Reggio Emiliako eskolen txoko guztiak irekiak eta aberatsak dira, eta zentzu horretan, tailerra ere guztiz irekia eta aberatsa da, baina oso aukera anitzak eskaintzen dizkio haurrari.

Tailerrean hainbat arte teknika ezagutu eta erabiltzen badira ere, ez zaio artelanari ematen garrantzi handiena. Hurrek teknika horien lan-taren bitartez lortzen dituzten ikasketaren prozesu ludikoak dira, hain zuzen ere, garrantzitsuenak.

Haurrak talde txikitik sartzen dira tailerrera (hiruzpalaunaka). Horrela hezitzaileek aukera ona dute haurren prozesuak behatzeko.

Tailerraz gain, gela bakoitzak tailer txiki bat dauka, non egunerokoan tailerreko aukera berdintsuak eskaintzen ahal diren.

Tailerrean aurki dezakegun materialen artean teknika grafiko-plastiko anitz garatzeko tresneria eta materialak daude, baita naturako materialak ere, eta taileristak asmatzen dituen beste guztiak ere bai. Material hauek guztiak haurren esku daude, ez dute jolas mugarik aurkituko. Beraz, "zinkindu" dezakete nahi adina, edo-

non... Askatasun horri haurren inizatibak gehitzen badizkiogu, tailerraren magia lortuko dugu.

Haurren zentzumen-esperientzak zabaldu egiten dira, bere barne eskemak aniztu eta bere sormena eta burujabetasuna etorkizunean bultzatuko dituzten bere buru irudiak indartu egiten dira.

Tailerista

Taileristek 3-6 urteko etapan egiten dute lan, eskola bakoitzeko tailerista bat dagoelarik. 0-3 etapan berez ez dago taileristarik, baina bi etapa horiek bateratuak daudenez, taileristek hor ere lan egiten dute.

Taileristaren heziketa Arte inguruak da, ez ordea pedagogikoa. Formazio ezberdina duen pertsona bat hezkuntza taldean integratzearekin bilatzen dena ikuspuntu berri anitzak sarraraztea da, eztabaida eta hausnarketa sakontzeko. Azken finean, lana aberasteko eskola beti berritzen jardun dadin.

Taileristaren funtzioak, laburrean esanda hauek dira:

Alde batetik, giroaren estetika zaintzen du, txokoak diseinatzen edota egokitzen laguntzen du.

Beste aldetik, hezitzaileen heziketa Arte mailan lantzen du. Reggioko eskola guztien artean tailerista asko daudenez, bakoitzak bere espezialitateko ikastaroak antolatzen ditu. Adibidez, "buztinaren ezaugarriak eta lantzeko formak", edota "Ikus-entzunezko teknikak, ordenagailua, bideoa, argazkilaritza"...

Azkenik, hezitzaile eta pedagogoekin batera, ikerketa proiektuak diseinatu, landu eta eztabaidatzen ditu, hainbat ikuspuntu ezberdin eskainiz.



Reggio Emilia

Italiatik Euskal Herrira

G A I A

G

Miriam Mendoza

Zarauzko Udal haurtzaindegiko hezitzailea



Azkenean iritsi da eguna! Hain entzunak eta famatuak diren Reggio Emiliako haur eskolak ezagutzeko aukera izango dugu. Bertara joan aurretik informatzen eta beste lankideen esperientziak jasotzen jardun gara ikusiko duguna ziurtatzeko, baina bidaia hau egin ondoren guk ere zer esanik izango dugu.

Haur eskolara sartu orduko harmonia bikaina nabari da, dena bere lekuan dago eta informazio eskean ibili beharrean inguruko horma guztiak dokumentatuta ikus daitezke: haurren eguneroko lanak, proiektuak, behaketak... "Hau lana!". "Auskalo zenbat ordu pasa dituzten hau egiten..." "Nondik ateratzen dute hau guztia lantzeko denbora?". Sinezgaitza egiten zaigu hori guztia nola eta nork gauzatu dezakeen ulertzea: "Ziur guri erakusteko besterik ez dutela egin, eguneroko martxan hau ezinezkoa da" diote sinesgogor batzuek (azken finean denok pentsatzen duguna da), baina hainbat eta hainbat haur eskola bisitatu ondoren lan kate baten ondorioa dela onartu behar izan dugu. Lan bikaina benetan!

Gure sinesgarritasunari helduz, begien bistan dagoen guztia behatzen aritu gara: objektuak, marrazkiak, baliogabeko materiala..., denek baitute bere garrantzia. Objektu eta material guztiak haurren esku daude eta txundituta geratu gara haurrek nola erabiltzen dituzten ikusitakoan. Haurrek behar dutena besterik ez dute erabiltzen, ez dute dena atera eta hankaz gora botatzen, ez eta beste lagunen jolasak edo eraikuntzak puskatzen. Nola kontrola daiteke hori beste haurrek amorratzea izugarriko garaipena izaten denean? Espazioa ere hainbat txokotan antolatua dago mota ezberdineko aktibitateak burutzeko, baina aukeran espazio libre gutxi dago. Hau dena ikusirik, gure ikuspuntutik, oraindik eta arrazoi handiagoa ikusten dugu bata bestearen espazioan sartzeko eta egiten ari dena puskatzeko, baina... errespetua nagusitzen da. Hala ere, haurrek non asetzen du bere mugimendu beharra? Non askatzen ditu bere bat-bateko indar eta energiak?

Espazio horietan giroa oso lasaia da, haurren mugimenduak oso lasaia dira eta baita hezitzailearenak ere. Baina era berean, kontaktu fisiko eta goxotasun falta nabaritu dugu hezitzailearen eta haurren artean. Bizpahiru egun hauetan musuak, kilima jokoak, zirikatzeak... faltan izan ditugu. Behin eta berriz aipatzen dugun harmonia horrekin ez dator bat afektibitate arloa. Hezitzaileak behaketa jarraian dirau ikusten duen guztia papertxoan idatziz. Aldiz, aukeran eta gure iritziz, haurren joko eta aktibitateetan parte-hartze eskasa dauka. Bere mugimenduak oso kontrolatuak ikusten dira, baita aurpegiko keinuak

ere. Non daude hurrek hainbeste atsegin dituzten dramatizazio eta espresioak, antzerki mundua...? Afektibitate eta harreman mundua beste era batera garatua ikusi dugu, goxotasun falta, konplizitate eza... nabaritu dugu. Haatik, nola kritika dezakegu hau guztia ikusteko egun gutxi batzuk soilik izan baditugu?

Pietro eta Andrea hasarretu egin dira batak bestearen eraikuntza puskatu duelako eta harro geratu gainera (ah! gu bezala odol berokoak dira, pentsatu dut berahala). Biak erdi borrokan hasi dira eta hezitzaileak kanpotik dena behatzen du. Beraien arteko arazoa ezin dutela konpondu ikusitakoan, begirada batez eta hitz gutxi batzuekin dena konpondua geratu da. Pietro Andrearen eraikuntza beregiten ari da ezer pasa ez balitz bezala (erraz hoztu zaie odol berotasuna!). Ez da ez negarrik, ez oihurik, ez aurpegi txarrik egon (eta nik benetako iskanbila nahi nuen halako harmonia posible ez dela ziurtatzeko...).

Egun hauetako bizipenak hitz gutxitan azaldu behar izanez gero, dena kontrolpean dutela esango genuke. Aukeran gehiegi? Gure ikuspuntutik ikusirik bai, dudarik gabe, baina bide hori nola gauzatu den ulertzea kosta egiten zaigu. Urte askoko lana da, ez hobe eta ez okerragoa, ezberdina baizik.

Izaskun Madariaga

Oiartzungo udal ikastola partzuergoko irakaslea



Duela lau urte Emilia Romagna jainginen bertako udal haur eskolak eza-gutzera. Lehen inpresioa izugarria izan zen hainbat arlotan: eskolen estiloa, haurri buruzko kontzepzioa, edukiak lantzeko modua, euren proiektuak, udalen inplikazioa eta haurtzaroko heziketaren garrantziaz zuten sinesmena, zitutzen azpiegitura aberatsak, 0-6 eta pa osoari erantzutea eta abar.

Aurten eskola horien guztien iturburura joateko aukera eduki dugu, alegia, Reggio Emiliako eskolak ezagutzera. Aurrekoan bezain hunkituta geratu ez banaiz ere (espero nituenak zirelako), ahalegin guztiak egin ditut bertatik jasotakoak barneratzeko, nire aurreko eskemetan txertatzen saiatuz gero, ahal nuen moduan prozesatzeko. Beraz, nire inpresioaz ariko natzaizue, han-hemenka ikusi, ohartu, frogatu edota antzeman ditudan azaltzen.

Eskola hauetara sartzerakoan, lehen inpresioa "giroak" egiten du. Zerbait oso desberdina usaintzen da berehala, eta zentzumenak tente jartzen zaizkigu.

Eskola inguru ederra dute. Berde kolorekoa, asfatorik gabekoa. Belardi eta zuhaitz ugari, ura, harriak, bidezidorrak, "mendixkak", aterpeak, lur gogorak ere tartean... elementu ugari haurrek aberastasunez aprobetxatzeko.

Barruko espazioak, espazio irekian sentsazioa ematen du, mugimenduan dagoenarena, altuera desberdinak, haizez mugitzen diren zintzilarioz beterik txoko guztiak, ispilu asko, espazio guztiak agerian, guztien esku,

sabai altuak eta argitasun handia, eskola guztia elkarkomunikatua, kristalezko ateak, txoko guztiak heziketarako aprobetxatuak, espazio hilik gabe. Eta han-hemenka etxeetan arruntak diren altzariak, eskola baino etxe kutsu gehiago eman nahian.

Edertasuna eta estetika da oso deigarria den beste alderdia. Dena dago ongi jarria, ezer itusirik ez, ezer hautsirik ez, gauza guztiak bere lekuan, txukun. Badirudi zehar lerro baten antzera, egiteko guztian dagoela presente estetika, osagai modura.

Kolorea. Faltan bota nituen gure geletan hain present dauden baztertu ezineko plastiko-kolore urdin-berde-gorri-hori-laranja horiek! Beste "klima" bat arnasten da, metalak, kristalak, kartoiak, paperak, egurrak, itsas-txirlak, kortxoak, oihalak... gozatzen dutena. Eta nola ez, hurrek margotu edota osatutako mural koloretsu zoragarriek bizitzen dutena.

Dokumentazioa. Zenbat informazio! Eskolari buruzkoa sarreretan, egiten diren proiektuei buruzkoak pasillo edo geletan, lantzen diren gaietako buruzkoak txokoetan. Irakasleek biltzen dute informazioa, baina hurrek egiten dute hitz, beraiek adierazten dute irakasleek jasotako argazki politen bitartez. Ez dira ekintza soilak komunikatzen, prozesuak baizik, eta horretan maisuak dira, badakite lanaren zentzua transmititzen kanpotik datorren edonori, gurasoei tarte. Horma guztiek hitz egiten dute.

Edukiak lantzeko era bizia. Esperimentazioan oso oinarritua. Haurren aurkikuntza, sormena, etengabe jartzen da martxan. Beraiek dioten haur kompetente eta ehun mintzaira duenarengan biziki sinesten dutela adierazten duen metodologia da. Argi-jolas ugari egiten dituzte efektu desberdinak sortzeko, itzalekin jostatzeko, gardentasunarekin esperimendatzeko. Efektu askotako ispiluak nonahi, norbere irudierekin jolasteko edota inguru modu desberdinez behatzeko. Eraikuntzei garrantzi handia ematen diete eskola hauetan, inoiz bildu ez eta amaierarik gabeko eraikinak daude geletako apaltxo berezietan. Komunetan ur-jolasak egiteko tresneria ugari. Plastika mun-



dua taileristen laguntzaz sakon lantzen dena da: marrazkia, pintura, modelaketa. Ikusgarria da nola txertatzen dituzten lan proiektuetan eta nola lortzen dituzten emaitzak edozein material mota tarteko erabiltzen dutelarik. Gaur egun, gainera, informatikaren laguntzaz beste esparru berrietan zehar murgildurik dabilta aukera berriak deskubritzen.

Garbi dago aipaturiko desberdintasun guztiak filosofia oso baten isla direla. Haurrari buruzko kontzepzioa, alde batetik, gai-ezindu binomioaren eztabaidan, eta honi lotuta, garapen-aprendizaiaren filosofia desberdina, eskolaren egiteko ideiarekin batera. Haurrak "laborategi" batean bizi dira. Ez dakiguna da, nola bizi diren, aukera gutxi izan baikenuen bertan ikusteko. Ikusi genituenak, gainera, 3 urtetik gorakoak izan ziren, txikiak txikiak zirelako jendearen bisitak jasateko. Beraz, sinplakeria bat litzateke ikusitako apurrarekin ondorio zehatzak ateratzea baina bai zerbait antzemateko:

- Taldeak txikiak dira. Taileristekin lana egiteko bi edo hiruko taldetxoak izaten dira gehienez, eta haurren portaera behatuz gero, hain lasai, hain autonomo eskolaren zehar, hain espazio behar gutxiarekin beren mugimenduetan eta a-

bar, noizbait oso gertutik "eramanak" izan direla pentsa liteke.

- 3 urte bitarteko haur eskoletan ikusitakoarekin lotuz gero, hango espazio eta material antolaketarekin, aurreko iritziak indarra hartzen du, haurrak oso gertutik jarraitzen dituztela, alegia. Adin horretan dago gakoa nire ustez, eta lastima izan zen eguneroko bizitza ezin ikusi izana. Inportantea zen irakasle-haurraren arteko harremana ikustea, proposamenak egiteko era ezagutzea, zein sozializazio arauak azpimarratzen zituzten ikustea eta abar.

Eskola horietan, espazioak ikusteaz gain, irakasle eta gurasoen azalpena besterik ez genuen eduki, ondo eginiko diskurtsoa (beste eskola guztietan bezala) eta proiektua parte-hartzailea eta ikuspegi integralarekin egina zela antzematen zena.

Reggioko udal eskoletan (eskola nazionalak oso desberdinak, konbentzionalagoak, baitira) gauza on eta aplikagarri asko topatu genituen nahiz, eta gure eskoletan haur gehiagorekin lan egin eta arlo askotan beste baldintza batzuk eduki. Beraien filosofia eta egiteko modu asko dira guretzat baliagarri. Baina honek ez du esan nahi Emilia Romagna eskolak perfektuak direnik, nahiz eta lehen momentuko harridura hori pentsatzera eraman. Izugarri interesgarriak dira, perfektuak ez. Niri gogorra egiten zitzaidan, esate baterako, bi ziklotako irakasleen formakuntza desberdina onartzea, eta gure artean gertatzen den bezala, 0-3ko irakasleak lehen zikloan soilik izatea hezitzaile eta 3-6ko formazioak, berriz, etapa guztirako balio izatea. Ulergaitza haurraren heziketaren garrantzia hainbeste gorapazten dutenen artean.

Edukietan ere hutsune batzuk antzematen ziren. Niretzat, txikiekin lan egiten dudalako agian, gorputzaren lan-

keta nola bidera zezaketen misterio bat izan zen. Geletan leku libre gutxi, eta kanpoan?... Hango belardiek ez zuten asko ibilitako itxurarik. Ederrak bai, baina zenbat denboraz gozatuak? Nire zalantzak ditut.

Heziketa zerbitzua kalitate handikoa dela ezin uka, baina garestia herriarrentzat. 0-3ko eskoletan 12.000tik 56.000 pezetara bitarte ordaintzen dute gurasoek hileroko, eta 3-6ko esparruan, berriz, 12.000tik 21.600 pezetara bitarte. Hori horrela izanik ere, esan beharra dago herritarrek nahi edo behar dituzten hainbeste plaza ez daudela, eta haur ugari gelditzen direla kalean edota beste eskoletara joan beharrean. 3-6ko adinean %100 dago eskolaratua lau eskola moten artean: udaleko eskolak, eskola nazional publikoak, erlijiosoak eta kontzertatuak. Eta 0-3 adinean, %38ra besterik ez dira iristen, esparru honetan ere beste egitura juridikoko eskolak sortzen ari diren arren. Horietako batzuek, gainera, udalekoen gidaritza eta aholkularitzapean. Gurasoek autogestionatutako kooperatibak, kontzertatuak eta beste hitzarmen mota batzuek dituzten eskolak ere ari dira sortzen 0-3ko haurrei erantzuteko.

Ikerketarik ez egotea beste hutsune garrantzizkoa dela iruditzen zait. Hainbeste urtez eta munduan zehar hainbeste lekutara hedatzen ari den ereduak ez du ondorioen eta geroko eraginaren inongo ikerketarik eginik. Hain artistak, hain ikertzaile ikusten diren haurrak, zein lanbidetan bukatzen dute, adibidez? Zertan eragiten du eskola bateko eta ez beste eskola bateko ikasle izanak? Merezi du, azken finean, halako heziketa bitxia ematea? Beraiei galdetuz gero, erantzuna berehalakoa dute: ez zaigu axolarik, ereiten duguna hor gelditzen zaie beren onerako.

Reggio Children Fundazioa bide berrietan sartu da, Reggioko eskola ereduari etekin komertziala ere ateratzen. Gure bisitan ezin izan genuen musutruk ezer lortu, dena ordainduta eskuratu ahal izan genuen, baita eskoletan ematen zizkiguten txostentxoak ere. Tamalgarria, ulergarria baino gehiago, baina saiatu naiz inpresio txar horrek barruan sentitzen nuen animoa ez itzaltzen nire lanari bultzada berritzailea emateko.



E L K A R R I Z K E T A

alfredo hoyuelos

**Pedagogoia eta Iruñeko Udal
Haur Eskoletako tailerista**



E

Tailerista, gauza guztien
gainetik, pedagogia bera
hausteko sortzen da, hezitzailei
lana oztopatzeko



Dpto. de Ps
Psikologia e
Dra. Isabel

alfredo hoyuelos



Hezkuntza
haurrarekin
egiten den lan
didaktikora
murritzten bada,
eta familien eta
hiritarren
heziketa
iraunkorraz
ahazten
bagara,
esperientzia ez
da
hezitzailea

Alfredo Hoyuelos Iru-eko Udal Haur Eskolako tailerista da. Irakasle eta pedagogoa den gizon hau Loris Malaguzziren pentsamenduari eta lanari buruzko doktoradutza tesia bukatzean dago. Duela 15 urte ezagutu zuen Reggio Emiliako esperientziaren sortzaile izan zen pedagogo italiarra, eta berarekin eta bere ideiekin maiteminduta gelditu omen zen.

Hala, Reggio Emiliako esperientzia gertutik ezagutu nahi zuen, eta 1986/87 ikasturtean hura joan zen bertako eskoletako hezkuntza ikuspegi ikertzerara eta sakontzera. Geroztik urtero jotzen da hango esperientziari jarraipena egiteko, eta bide batez bertako hezitzaileekin harremanak mantendu eta iriztiak elkartrukatzeak.

Iru eko Udal Haur Eskoletan Malaguzziren proiektua lantzen dute eta harreman estua dute Reggio Emiliako haur eskolekin. Alfredo Hoyuelos da bederatzi haur eskola horietako tailerista.

Gertutik ezagutzen ditugu Reggio Emiliako zein Iru eko esperientziak, beraz.

1986an etorri zen Loris Malaguzzi pedagogo italiarra Iruñera ikastaro bat ematera eta han ezagutu zenuen. Une hartatik bertatik maitemindu omen zinen berarekin eta bere ideiekin, eta hala jarraitzen omen duzu. Zer ikusi zenuen berarengan horrelako eragina sorrarazteko?

Bi gauzek hunkitu ninduten; haurrei buruz hitz egiteko zeukan moduak eta bere pentsamenduak.

Ordura arte inoiz entzun ez nuen moduan hitz egiten zuen haurrei buruz, ikuspegi psikologiko eta pedagogiko-etatik urrunduz. Haragi eta hezurrezko haurraz ari zen, ez unibertsitatean, salbuespenak salbu, erakutsi ziguten liburuetako haurraz. Malaguzziren esaldi entzutetsu bat dago: "hezkuntza ona egin nahi baduzu, lehenengo psikologiako, pedagogiako eta didaktikako liburuak itxi behar dituzu".


Haur ahaltsu eta aberatsaz hitz egiten zuen. Haurra poesiatik, metaforatik eta ahalmen neurologikoetatik eta biologikoetatik ikusteak haurren gaitasunei buruzko ikuspegi berria sorrarazi zidan.

Bigarrenik, oso errotuta neuzkan psikologia eta pedagogiako kontzeptu eta ideiak krisian eta zalantzan jarrarazi zizkidan. Halako moduan puskatzen zuen neukan guztiarekin, non horretan arakatzeko eta ikertzeko gogo bizia sortu zidan.

Bera ezagutu ondoren Reggio Emiliara joan zinen. Zer aurkitu zenuen han?

Lehenengo egunean 3-6 urte bitarteko haurrentzako eskolan hunkitu ninduten zenbait gauzeekin egin nuen topo, eta hango esperientziak esan nahi izan duenarekiko iradokitzaileak izan dira.

Hasteko, ni Iruñean Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolan aritua nintzen; oso handia zen, munstro bat bezala. Haur pila bat zegoen, ia denak anonimoak eta ezezagunak. Reggio Emiliako eskolan sartu nintzenean, esparru txiki bat aurkitu nuen. Hiru gela baino ez zeuden, eta 75 haur osotara. Haur eta guraso guztiak ezagunak ziren, familia txiki bat izango balitz bezala. Han udal haur eskola guztiak horrelakoak dira.



Antolaketari buruz zer diozu?

Malaguzzi ideologo handia zen, baina gaitasun izugarria zuen ideien antolaketa espezifikoaren bitartez hori guztia ekintza konkretura nola pasa jakiteko. Pentsatzen badu eskolak puskatu egin behar duela haurraren irudi psikologiko-pedagogikoarekin, taile-rista jartzea proposatzen du. Pentsatzen badu eskolak denen gainetik alderatzea edo erkatzea izan behar duela, hezitzaileak binaka jarriko ditu. Pentsatzen badu hezkuntzak soziala izan behar duela, partaidetza bultzatuko du, baina begien bistako gauzetan islatzen dena. Pentsatzen badu hezitzaileak prestatuta egon behar duela, derrigorrezko prestakuntza ezarriko du.

Ideien alderatzea edo erkatzea da beste zutabeetako bat. Zer esan nahi du horrek?

Hitz horrek denak batera eztabaidatzea eta elkarrizketatzea esan nahi du. Oso garrantzitsua da gauzak emantzat ez hartzea. Heziketa hainbat ekintzen erkatze publikotik sortzen da. Erkartzen ez garen momentutik itxi egiten gara. Hezitzaile bakar bat bere gelan ixten bada eta modu pribatuan hezten badu, ez du inorekin alderatuko gela barruan gertatzen dena, haurrak bere ikuspuntutik baino ez ditu ikusiko, eta esperientzia behartsua da oso.

Heziketa publikoa bada, erkatze horrek ere publikoa izan behar du. Garrantzitsua da sukaldariarekin, laguntzaileekin nahiz gurasoekin eztabaidatzea eta haurrak hori ikusi egin behar du hortik ikas dezan.

Bigarrenik, eskolako ingurunearen kalitate estetikoak harritu ninduen. Oso zaindua dago, ondo neurtua, gustuz jarria, ez dago alferrikako elementurik, aberastasun kromatikoa eta kulturala handia da, eta haurra eta hezitzaileak biltzen dituen giroa goxoa.

Hirugarrenik, gela bakoitzean hezitzaile bi egoteak ere harritu egin ninduen, hemen bakarra egoten baita. Bi hezitzaile egoteak ikuspegi eta iritzi ezberdinak eztabaidatzeko aukera ematen du.

Laugarrenik, elkartasun harremana eta laguntzaileekin eta sukaldeko langileekin dagoen erabateko komunikazioa aipatu behar da. Guztiek hartzen dute parte bileretan eta gauza guztietan, denak dira eskola komunitateko kide.

Azkenik, familiekiko komunikazioa aberatsa dutela esan behar da. Harreman emozionala, gizatiarra, afektiboa eta komunikaziozkoa sortzen da eta haurrak eskola uzten dutenean ere mantentzen dute harreman hori.

Elementu horiek guztiak hango esperientziaren iradokitzaileak direla esan duzu. Zein dira Reggio Emiliako esperientziaren oinarriko zutabeak?

Haurrenganako errespetua, giza eta politika partaidetza, antolaketa, ideien alderatzea edo erkatzea eta proiektuaren izaera. Zutabe hauek guztiak lotuta daude. Malaguzzirentzat hezkuntza sistema bat da eta elementu guztiek elkarlotuta egon behar dute.

Sakon dezagun zutabe horietan bakoitzak eusten duena zehazki zer den jakiteko. Haurrenganako errespetua aipatu duzu hasteko. Zer ulertu behar dugu horrekin?

Haurra bera den bezala errespetatzea eta onartzea esan nahi du horrek, hots, hainbat gauza errespetatzea; haurraren gaitasunak, guretzat arrotza dena, entzuterik espero ez duguna, bere garapena ez oztopatzea programazioen bidez... Malaguzzik oso garbi adierazten du "Haurraren 100 hizkuntzak" erakusketan berak egiten duena hezkuntza pedagogia profetiko guztiaren kontra dagoela. Horrela dio: "Aurrez gertatuko den guztia dakien pedagogiaren aurka dago gure hezkuntza,

haurrari egun guztiak berdinak direla eta ezustekorik ez dagoela erakusten dionaren aurka, helduek egiteko aukerarik izan ez duten hura errepikatu besterik egin behar ez duten horren aurka".

Idea hau optimismoari eta alaitasunari oso lotuta dago. Optimismoak esan nahi du haurraren ahalmen eta baliabideei bide ematea, orain arte sistematikoki gordeta gelditu baitira hezkuntzan bertan. Alaitasuna ere oso garrantzitsua da Malaguzzirentzat. Historikoki pedagogia, eskola osoa, curriculum... pedagogia triste osatua dagoela dio, azterketei, akademizismoari, derrigorrez joateari, gero zentzurik aurkituko ez zaien gauzak ikasteari eta abarri lotua. Pedagogia alai eraiki behar dugu, irribarre eginaraziko diguna, zoriontsu egingo gaituena. Eta hori lortzen da haurrek, hezitzaileek eta familiek eskola maitatzen badute. Modu horretara, eskola porrota ekidingo genuke.

Malaguzzik dioen bezala, eskola bat atsegina da lan iraunkorra egiten duenean, eroso denean, asmatzeko gai denean, bizigarria, begi-bistakoa ea komunikagarria denean, eta ikerketa, ikasketa, kritika eta hausnarketarako lekua denean. Gogobetetze pertsonala nahiz profesionala ematen duena. Familiartasunera, elkarrizketara, urruntasunen ezabaketara eta estilo demokratikora gonbidatzen duena. Hala-moduzko eskola sortzen duten bakardadea, banaketa eta axolagabetasunaren aurkako gune bat. Eskola atsegina aldi berean haurren, profesionalen eta gurasoen eskubideen alde borrokatzen dakien hura da.

Partaidetza nolako da?

Reggiokoentzat eskola komunitateko kide guztien partaidetza oso garrantzitsua da. Laguntzaileek eta sukaldeko langileek hezitzaileekin batera parte hartzen dute. Familiarekiko elkarbizitza eta familiarekin egiten diren gauzak oinarrikoak dira. Hezkuntza soziala da gauza guztien gainetik, eta ez didaktikoa. Hezkuntza haurrekin egiten den lan didaktikora murrizten bada eta familien eta hiritarren heziketa iraunkorraz ahazten bagara, esperientzia ez da hezitzailea.

Ezin da
ulertu
gizartea eta
haurrak
aldatzen ari
diren
heinean,
horretara
prestatu
gabeko
hezitzaileak
egotea

Proiektuaren ideari buruz zer azpimarratuko zenuke?

Hurrekin gaiak lantzeko orduan proiektuetan oinarritzen dira, eta ez programazioetan. Proiektuak haurrak hobeto ezagutzeko egiten dira eta orduan beren kultura, ideia edo irudizkoetatik (haurrak mundutik sortzen dituen irudiak) abiatu behar dute. Hurrei egokitutako proiektuak proposatu ahal ditugu, haurrentzat zentzua daukaten proiektu errealak. Ondoren, behaketa, ikerketa eta dokumentazioaren bidez lantzen da proposatutakoa. Behaketak esan nahi du sistematikoki ikustea ETA datuak hartzea gertatzen dena interpretatu ahal izateko. Ikerketa ezezaguna den horretan sakontzea da. Eta dokumentazioa garrantzitsua da egiten denaren testigantza uzteko.

Zer desberdintasun dago proiektuaren eta programazioaren artean?

Programazioa aurrez zehazten da haurrak lortu behar dituen helburuen eta horiek gauzatzeko egin behar dituen ekintzen bidez.

Proiektua, aldiz, zehaztugabea da. Proiektuak edo haurraren eraikuntza eta ikasketa prozesuak nola garatuko diren aurrez jakitea ezinezkoa da.

Adibide garbi batekin ikusiko dugu desberdintasuna. Reggio Emiliako eskola batean mahai bat egin behar zen eta hurrei ea diseinatzeko gai zi-

ren galdetu zitzairen, gero zurgin batek eraikitzeko. Baiezkoaren ondoren diseinatzeari ekin zioten. Horretarako erabiltzen zituzten bideak, bilatzen zituzten estrategiak, neurriak emateko moduak... aurrez jakitea ezinezkoa zen. Batek oinetakoekin neurtu behar zela esaten zuen, baina orduan ohartu ziren oinetako guztiak ezezirela berdinak. Horrela, neurtzeko oztupoekin topo egin zuten, eta zentimetroa, metroa eta abar ezagutzera iritsi ziren, beraiek bakarrik, hezitzaileek bideratu gabe.

Programazioan oinarrituko bagina, "metroa zer den ikasi behar dute" esango genuke, eta ariketa eta ekintza desberdinak planteatuko genituzke hori ikasteko. Modu horretara, hurrek oinekin neurtzeko duten kultura guztia galdu egingo genuke.

Nolakoa da Reggio Emiliako haur eskoletako hezitzaileen prestakuntza?

Astero guztientzako derrigorrezko bi ordu t'erdiko prestakuntza pedagogikoa egin behar dute proiektua prestatzeko eta bere balorazioa egiteko. Horrez gain, urtean urtean 45 orduko derrigorrezko formakuntza jarraia eta ordaindua daukate, lan hitzarmenean dagoena. Izan ere, ezin da ulertu gizartea eta haurrak aldatzen ari diren heinean, horretara prestatu gabeko hezitzaileak egotea.



Hemen prestakuntza, salbuespenak salbuespen, borondatezkoa da, eta ezin du horrela izan. Haurraren eskubidea da hezitzaile prestatua edukitzea.

Hezitzaileez gain, tailerista den pertsona bat dago. Zer da tailerista?

Reggio Emiliako 3-6 urteko haur eskola bakoitzak tailer bat du bere taileristarekin. Arte akademiako prestakuntza artistikoa duen pertsona da. Bere egitekoa da bere ekintzekin eta harremanekin berma antzeko bat eratzeari heziketa esperientziak fresko eta sortzaile iraun dezan eta eskematizazioaren gehiegikerietan eta ohikerietan eror ez dadin.

Nolatan sortu zen pertsona hau? Malaguztik uste zuen pertsona bakoitzak bere ikuspuntua zuela haurrak ikusteko, eta hezitzaileek, beren formakuntza eta deformakuntzaren ondorioz, haurra era zehatz batera ikusten zutela. Horrenbestez, gorpil zoro batera iristen gara. Hori eragotzi behar zela zioen Malaguztik, normaltasun gehiegi zegoela eskoletan eta hori apurtu egin behar zela.

Horretarako, aldamenean beste norbait behar dugula ohartu zen, ikusten dugunaren beste ikuspegi bat emango digun norbait. Hortik sortu zuen tailerista. Bere arte formakuntzaren bidez estereotipoak eta topiko psikologiko eta pedagogikoak puskatzeko pertsona da tailerista. Artea ez da haurrek Artea ikasteko erabiltzen, baizik eta errekurso edo estrategia bezala erabiltzen da gauzak beste era batera ikusteko. Horretarako artistak egokiak direla uste zuen, gai direlako mundua oraindik inork ikusi ez duen bezala ikusteko.

Adibidez, hezitzaileek txoko bat diseinatzen dutenean funtzionaltasuna bilatzen diote (psikomotrizitatea lantzeko izango da, joko sinboliko bantentzat, eraikuntza lantzeko...). Artistak, ordea, instalazio edo espazio guzti bezala ikusten du.

Baina, gauza guztien gainetik, pedagogia bera hausteko sortzen da, hezitzaileei lana oztopatzeko bere planteamenduetan hain eskematikoak izan ez daitezten.

Nola gauzatzen da taileristaren lana? Jar iezaguzu adibide bat.

Hezitzaileak eta taileristak proposamen batzuk lutzatzen dizkiete haurrei. Tailerista saiatzen da proposamen horietan hezitzaileak lantzen ez dituen eta ezagutzen ez dituen alderdi berriak lantzen.

Ondoren, haurrak behatzen dituzte, batzuetan biek batera, besteetan taileristak bakarrik eta besteetan hezitzaileak bakarrik. Behatzearekin batera dokumentazioa biltzen dute bideoekin, diapositibekin eta abar. Hori aztertu eta hausnartzen dute gero, eta normalean ez dira ados jartzen tailerista eta hezitzaileak. Hori da politena eta interesgarriena, hain zuzen ere. Batek gauza bat ikusten du, eta besteak beste bat. Bakoitza aberastu egiten da besteak planteatzen dizkion ikuspuntuekin.

Proiektu horietako batzuk taileristarean egiten dira, eta beste batzuk taileristerrera sartu ere egiten gabe.

Orduan, Reggio Emiliako haur eskolak ez dira arte eskolak.

Ez, eta hori garbi edukitzea garrantzitsua da. Biraoa iruditzen zaie beren eskolak arte eskolekin identifikatzea. Izan ere, Malaguztik haurraren ehun hizkuntzak aipatzen dituen hizkuntza asko eta denak elkarrekin komunikatuta daudela esaten du. Arterari lehenetasuna ematea bere printzipioen aurka dago, beraz.

Iruñeko Udal Haur Eskolek Reggio Emiliako esperientziaren aldeko apustua egin zuten orain dela 13 urte. Nola gauzatu da? Zein balorazio egiten duzu?

Nire ustetan, esperientzia gazi-gazi izan da. Bederatzi haur eskoletan ezarri zen esperientzia hau eta ondorioz anitza izan da, guztietan ez da gauza bera egin. Dena den, batzen gaituen ideia bakarra dago. Balio garrantzitsuak landu ditugu, haurrak sentsibilitate handiz behatu dira, tailerrik ezarri dira, ingurunea zaindu da, dokumentazioa landu... eta guztia erantzukizun eta borondate handiz.



Zein oztoporekin topatu zarete?

Antolaketa aldetik muga eta gabezia handiak daude: profesional kopurua txikiak da, sistemak berak erosotasunak sorrarazten ditu... Tamalgaria da eta oztopoak jarri besterik ez du egiten horrelako esperientzia aurrera ateratzeko.

Horrez gain, LOGSEren dekretuaren prespektibak ez dira atsegingarri eta esperantzagarriagoak.

Posible ikusten al duzu Reggio Emiliako esperientzia Euskal Herriko beste haur eskoletara zabaltzea?

Lehendik martxan dauden eskoletan baino hobeto garatuko litzateke eskola sortu berrietan. Izan ere, gure lanbideko gaitz bat berrikuntzarako eta sortzeko zailtasuna da. Seguritasun eza izugarria dago hezkuntzan, eta erosotasuna ere bai. Badirudi gurdibide batzuetan sartu eta ez garelako hortik ateratzeko gai. Eta Reggio Emiliako esperientziak etengabe mugitzea eskatzen du, ia-ia errailetik irtetea.

Horregatik diot errazagoa dela pertsona berriak dauden tokian jartzea abian proiektu berri bat, hainbeste eskema ez dituztelako.

Dena den, ez dut esaten martxan dauden eskoletan ezarri ezin denik, hor dugu Iruñeko adibidea. Aldaketa interesgarriak egin daitezke heziketa esperientzia kualifikatuz. Malaguztik hala zioen: "Hezkuntza desgokoki baten bidez haurraren gaitasunak eta aberastasunak traizionatzen baditugu, giza espezie osoa traizionatzen ari gara".



I. Ikasle Eguna ospatu da Amurrion

Azaroaren 26an 2.000 ikasletik bildu ziren Amurrion ospatu zen Ikasle Egunean. "Ikasle iraultzaz euskal mundu berria sortu" lelopean ospatutako egunak ikasleen topagune izatea lortu zuen.

Egunari hasiera emateko burutu zen harrera ekitaldian bi ikasle kolektibo omendu zituzten: ikasleen artean intsumiso jarrera pizten lagundu dutenak eta ikasle errepresaliatuak (kaleratuak, espedientea dutenak...). Lehenengoan izenean, abenduaren 6ko egunez ikastetxea irekitzen lehengoak izan ziren Durangoko ikastetxeko ikasle batek irakurri zuen pregoia. Ondoren, ikasle errepresaliatuen ordezkariak, NUPeko ikasle batek, txupinazoa bota zuen. Hauek abenduaren 7an epaituak izango dira euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzeagatik.

Ikasle Eguneko ekitaldiak zazpi gunetan burutu ziren, guztiak ikasleei egokiturik eta zuzendurik zeudelarik. Lehen gunean Euskal Herriko ikasle mugimenduaren inguruko bideoak ikusi eta solasaldia garatu zen; iragana, oraina eta geroa izan ziren aztergai. Gune berean ikasle mugimenduaren inguruko erakusketa eta laburmetraia ere ikusgai egon ziren. Bigarren gunean nazioarteko ikasleak egon ziren euren esperientziak kontatuz. Mexikoko eta Kataluniako ikasleek hartu zuten parte. Hirugarren gunean hainbat jolas burutu ziren, guztiek ere karakterizazio berezia izan zutelarik: garai ezberdinetako klaseen parodiak egin ziren, bolo jokorako boloei zinpego guarden edota hezkuntza agintarien itxura eman zitzaizen, dardo joko hezkuntza eredu inposatuei zuzendu zitzaizen, Euskal Herriko mapa erral-

doi batean gertaera historiko zein leku geografikoak ezagutzeko aukera izan zen... Laugarren gunean bertso hip hop pilota partidua burutu zen. Ikasleen gaztetasuna eta berrikuntza islatu zituen joko "berri" honek. Gune berean egin ziren herri-kirolak.

Bosgarren gunean bost erakusketa izan ziren ikusgai: liburuena, artearena, kartelena, irratiaarena eta xixena.

Seigarren gunea kale animazioak osatu zuen eta zazpigarrena bazkariak.

Eguneko ekitaldi horiek jarraipena izan zuten gaueko kontzertuarekin. Horren aurretik burutu zen ekitaldi politikoan bideo baten bidez eta ikuskizun baten bitartez ikasle egunaren izaera gogorarazi zuten. Ikasle mugimenduaren irakurketa bat egin zuten, eta Euskal Herriko irakaskuntzaren errealitatea ekarri zuten gogora. Azkenik, irakaskuntzaren egoera eta ikasle mugimenduak burutu duen lana azpimarratu zituzten.



Harrera ekitaldian ikasle intsumituak eta errepresaliatuak omendu ziren.



Ikasle intsumituen ordezkaria Ikasle Eguneko pregoia irakurtzen.

Joana Etxebarria: "Ikasle izaera aldarrikatzeko eta ikasleen topaleku izateko xedez ospatu dugu Ikasle Eguna"

Zer dela-eta ospatu duzue aurten lehenengo aldiz Ikasleen Eguna?

Hausnarketa bat egin genuen, eta zera ikusi genuen: ikasle mugimenduak bilakaera bat ezagutu zuela Euskal Herrian, eta ikasle izaera errebndikatze, azpimarratzeko eta aldarrikatzeko topaleku bat behar genuela.

Gure inguruan hainbat jai ospatzen dira: ikastolen aldekoak, gazte egunak, euskararen aldekoak... Data erreferenteak dira, eta horiek bezalaxe, ikasle kolektiboari eskainitako erreferente baten beharra somatzen genuen. Horregatik ospatu dugu Ikasle Eguna, ikasleei protagonismoa eman dien topagune bat jarri dugu martxan.

Zein mezu zabaldu nahi izan duzue?

Ikasleok mungu berria sortu nahi dugu, zehazki euskal mundu berria. Gure kasuan, kontziente gara Euskal Herrian gaudela eta geure herriaren etorkizuna dela eraiki behar duguna. Horregatik, hautatu dugun lema zera da: "Ikasle iraultzaz euskal mundu berria sortu". Azken batean, ikasle izaera aldarrikatu nahi izan dugu.

Eta zer ulertzen duzue ikasle izaerarekin?

Ikasleak garela; ikasi, sortu, amestatu, borrokatu eta eraiki nahi dugun gazteak. Geure herriaren eta munduko gainontzeko herrien iragana eta oraina ikasi, ezagutu eta interpretatu nahi dugu, geure herriaren etorkizunaren eraikuntzan eragile aktibo izateko. Daukagun indarra mundu berri bat eraikitzeko erabili nahi dugu.



Zein ikasle motari dago zuzendua Ikasle Eguna?

Printzipioz egun horretako protagonistak munduko eta konkretuki Euskal Herriko ikasle iraultzaileak dira. Noski, jende guztiari egin zitzaion parte hartzeko deialdia, baina protagonismoa ikasle iraultzaileek izan zuten, benetan mundu berri baten sortuntzan lanean ari direnek eta belaualdi berria osatzen dutenek.

Ez du zertan izan behar ikaslea modu akademikoan. Benetan ikasle sentitzen den gazte iraultzailea eta gauzak aldatzeko prest dagoena jende oro da ikasle, azken finean.

Nolako izaera eman nahi izan diozue Ikasle Egunari?

Orain arte aipatu ditudan ezaugarriak biltzen dituen eguna da, hau da, ikasle izaera hori bere baitan duen eguna. Egundorretako eztabaida, mahai inguru, irakurtaldi, erakusketa, hitzaldi eta jolas guztietan islatzen da hori. Hau da, ekitaldi horiek guztiek karakterizazio berezi bat dute, sinbolismoz beterik daude, ikasle ikuspegitik planteatuta: ikasleen mugimen-

duaren inguruko bideoak eta hitzaldiak, ikasleen iragana, oraina eta geroari buruzko eztabaidak, nazioarteko ikasleen parte-hartzea, hezkuntza eredu inposatuei zuzendutako dardo jokoak, Euskal Herriko mapa erraldoian egokitutako jokoak, bertso hip hop pilota partidua, ikasleen arteko herri kirolak... Parte-hartzea, eztabaida eta kritikotasuna bultzatzen dira, eta guztia jai giroan murgildurik.

Aldarrikapen horiek Ikasle Eguna mugatzen al dira?

Ez, Ikasle Eguneko diskurtsoa ez da egun horretara mugatzen, diskurtso atemporalagoa da. Ikasleen izaera iraultzailea ikuspegi orokorrago batetik garatzeko eta ikasleen erreferente izateko planteatzen da eguna, baina horrek jarraipena eskatzen du urte osoan zehar. Esaterako, abenduaren 6an, espainiar konstituzioaren egunean, urtero bezala, ikastetxeko ateak ireki daitezten saiatuko gara. Desobediencia bidea haratago eramateko beharra nabaritzen dugu, arazoari bere neurriko erantzuna eman behar baitzaio. Beraz, Ikale Egunean elkarrekin elkartu arren, eguneroko lanak jarraipena izan behar du.

Hemendik aurrera urtero ospatuko al da?

Aurtengoa lehenengoa izan da eta ez dugu uste azkena izango denik. Dena dela, oraindik ez dugu erabaki zenbatetik behin ospatuko den, hori balantzea egin ondoren erabakiko dugu.

Hala ere, azaroaren 17aren inguruan ospatuko da, hots, Ikasleen Nazioarteko Egunaren inguruan.

Hatz eta behatz

IKAS Pedagogia Zerbitzuaren bertso-ipoen proposamena

Ikas Pedagogia Zerbitzuak gure eskuetan jarri duen materiala dugu Hatz eta behatz. Kanturiren ondoren, berriz heldu diote lehen zikloko (2-5 urte) eta bigarren zikloko (7 urtera arte) haurrentzako ikasmateriala osatzeari. Hatz eta behatz erhi edo hatz jokoak oinarri dituzten 25 bertso-ipoen bilduma da.

Horietatik zenbait euskal ondaretik heldu zaizkigu, beste batzuk ondare unibertsaletik moldatuak izan dira, eta beste multzo bat bilduma apailatu duten irakasleek beraiek asmatu dituzte. Irakasle horiek Iparraldeko eskola publikoetakoak zein pribatueta-koak dira.

Bat, bi eta hiru, has gaitzen

Materiala eskuratu ondoren, bertako bertso-ipoenak hurrekin lantzeko prest gaude. 25 bertso-ipoen horietako bat hauta dezakegu. Ondoren, kolorezko marrazkitik abia gaitzke eta euskarri hori harturik ikasleak mintzaraz ditzakegu. Ondoren, bertso-ipoenaren deklamatzeari etorriko da. Egunean ordu laurden batez arituz, zenbait egunen buruan haurek gogoan atxikitzen omen dute bertso-ipoa egileek diotenez. Horren ondoren, erhi edo hatz jokoak egin daitezke, eta bukatzeko ariketa edo joko bat. Hau proposamen bat baino ez da, nahi den gisara erabil baitaitezke aipatu elementuak: lehenengo erhi jokoak egin, gero bertso-ipoa kontatu...

Esan bezala, 25 bertso-ipoen eta erhi joko gaude, baina horiez gain, hatz jokorik ez duten zenbait bertso-ipoen ere badaude, hizkuntza aberas- teko egokiak iruditu baitzaizkie egileei.

Hizkuntza eta motrizitatea lantzeko tresna da

Bi alor nagusiren lantzea daukate helburu material honetako bertso-ipoenok: hizkuntza eta motrizitatea. Hizkuntzari dagokionez, bertso-ipoenek haurra laguntzen dute euskararen trebatzen (ahoskatzen), aberasten (hiztegia, joskerak), eta idatziari hurbiltzen (lotura eginez entzuten eta ikusten duen testuaren artean). Egoera bakoitzean lehenetsia eman diote hizkuntza nozio bati. Egileek diotenaren arabera "irakasleak nozio hori maiz erabiliz eta eredu horren erabil- tzea eskatuz, haurrak horren betekizuna eta beharra sentitzen du, anitz al- diz entzuten dituen erranaldiak kon- paratuz eta errepikatuz. Gisa horre- tan, hizkuntza ez da egitura ariketen bidez lantzen, baizik eta eguneroko biziak, proiektuek eta egoera natura- lek eskaintzen dituzten paradak baliatuz".

Motrizitatea lantzea material honen bigarren jomuga. "Erhiekin, es- kuekin eta gorputzarekin egin mugimenduaren bidez, erritmoari jarrai- kiz, mugimendu edo keinu horiek i- deien itxura izanki, gainera" diote egi- leek.

Helburu bi horiez gain, gidaliburu honek beste jakintasan andana baten lantzeko parada eskaintzen du: jendarteko bizitzari dagozkionak (haurrak arauak ulertzen eta onarti ditu eta jokamoldea jardueri egokitzen), denborari eta espazioari dagozkienak (haurrak bere burua leku batean eta denbora hurbilean kokatzen du), me- todologiari dagozkionak (haurrak



memoria azkatzen du) eta matemati- ka alorrean (haurra zenbatzen hasten da), besteak beste.

Hori guztia haurra ahal bezainbat egile edo sortzaile eginez bultzatu nahi da, betiere jolas giroan.

Berrikuntza gehiago

Aurkeztu proposamenaz gain, he- mendi aitzina multimedia materialak ere gure eskura jarriko ditu Ikasek. Fa- bula proiektua aurkeztu berri du. I- puina CD-ROMetan lantzeko aukera emango du proiektu honek; hots, tes- tu idatziak, ahotsak eta marrazkiak nahasteko.

Horrez gain, Ikasen webgunean e- re informazio topatuko dugu aurre- rantzean.

Hatz eta behatz bilduma- ren agiriak

- Kolorezko 25 marrazki. Atzeal- dean marrazkiari dagokion bertso- ipoaren testua eta esku mugimen- duen itxurak erhi jokoak egiteko.

- Marrazki bakoitzari dagokion bertso-ipoenaren testua duen orri bat. Atzealdean margotu gabeko marrazkia, ikasleek beraiek margo dezaten.

- Gidaliburuan: bertso-ipoen ba- koitzari dagokion gainerako ustia- pena, landu diren jakintasanaren bilduma etabertso zenbait bertso- ipoen.

Bide eginean jarraitzen

dugu zuen ekarpenekin

eta parte-hartze

handiagorekin aberastu

nahi dugularik



Berriak abendua

Euskal irakaskuntzari egindako erasoen aurrean, mugitu gaituzen!

Azkenaldian Madrilgo administrazio zentralaren erasoaldiak jasaten ari da euskal irakaskuntza. Horren aurrean, hezkuntzako eragileok ez gara isilik gelditu, berpizten ari gara eta jarrera aktiboz erantzun nahi dugu. Oraindik hastapenetan dagoen mugimenduaren lehen urratsak dira honako adierazpenak eta mobilizatorako deialdiak. Baina gizentzen joango den mugimendua izango da, euskal irakaskuntzak denon babesa eta bultzata behar baititu.

Hainbat ikastetxetako zuzendarien adierazpena

Azken aldi honetan Hezkuntza, hezkuntza sistema bera, ia egunero hizpide dugu hedabideetan. Arreta mediatiko hau ez da hezkuntza sistematik bertatik sortutako ekimenen ondorio (ez genuke besterik nahi), baizik eta, zoritxarrez, hezkuntza sistemaren erabilpen politiko alderdikoiaren jarduera jakin batetik eratorria.

Eguna joan eta eguna etorri, zehaztasunik ezean, burugabekeria, terribertsazioan, itxuragabekeria, baita irainean eta faltsukeria ere, oinarritutako adierazpen uholde baten aurrean gaude.

Atsekabez ikusten dugu kanpaina honek esistitzen ez den lotura ezarri nahi duela hezkuntza sistema, euskarazko irakaskuntza, xenofobia, arrazakeria, inkompetentzia profesionala, bortizkeria, ikaslearen gaitasunik eza, dotrinatze ideologikoa eta abarren artean.

Kanpaina honen sustatzaileei bost axola ikastetxetako errealitateak marraztutako egoerarekin zer ikusirik ez badauka. Bost axola salaketa hauen aldeko datu bat bera ere ez badago. Bost axola orain arteko azterketa eta ebaluazioek alderantzizkoa badiote.

Funtsean, euskarazko irakaskuntzaren aurka, ikastetxeen autonomiaren aurka eta hezkuntza sistemako profesionalen aurka egindako erasoak baino ez da. Urteetan zehar pazientzia handiz eraikitakoaren aurkako erasoak, beraz. Horretarako, errealitatea eta datuak bestelakoak direnez, terribertsazioa, manipulazioa eta gezurreta jo dute.

Horregatik guztiagatik, behean izenpetzen dugunok euskal ikastetxetako zuzendari bezala, salatu egin nahi dugu kanpaina hau eta jokabide horretan etsi dezatela esijitzen diegu arduradunei. Aldi berean, zerbitzatu behar duen gizartean erroturiko heziketa kalitatezko eta propioarekiko konpromisoa berresten dugu.

Guk geure eskola adierazpena

Komunikabideen bitartez jakin dugu PPKo Gobernuak Espainiako Estatu osoan hasi nahi duen hezkuntza-erreformaren berri. Bide beretik, jaso ditugu dagoeneko klase politikoaren lehen erreakzioak, haien artean zenbait autonomia erkidegotako agintariak. Hala ere, delako erreformaren lehenbiziko helburu edo joan —hau da, ikastetxeotan— ez dugu informaziorik jaso, eta, jakina, hainbat gutxiago inork iritzirik eskatu digu. Euskal Herrian, gainera, erreforma iragartze honekin batera etorri da PP, UPN, PSOE eta UA alderdien zuzen-zuzeneko erasoak euskal heziketaren kontra.

Euskal Herriko hezkuntza-komunitate askotarikoa osatzen dugunok ezin gaituzke egonean gelditu, eta salatu egin nahi ditugu ikusten ari garen jarrera arduragabeak. Aldi berean, erakutsi nahi dugu zein den gure ikuspegi komuna etorkizuneko hezkuntzaren inguruan, ez baitugu islaturik ikusten egiten ari diren planteamenduetan.

Hori dela eta, behean sinatzen dugun gizarte- eta hezkuntza-erakundeok gure jarrera adierazten dugu, puntu hauetan ardazturik:

Hezkuntzaren antolaketa demokratiko baten alde

Zuzenbide Estatu bateko hezkuntza-erreforma orok, edozeinek, demokratikoa izan behar du. Hau da, beharizanez hasi eta aplikazioraino, taxutzea eta antolatzea barne, kontuan izan behar ditu zuzentzen zaion hezkuntza-komunitatearen interesak, kontrastatu egin behar du errealitatearen diagnostia, indargune eta ahuluneena, baliabideak neurtu eta lehentasunak ezarri, eta erabakietan gizar-tearen iritzia kontuan hartu. PPKo Gobernuak ez du eman pauso demokratiko horietako bat bera ere. Are gehiago, beharizan partidista eta artifizial bat sortu du hedabideetan —dudako kalitatekoa—, LOGSE erreformaren inguruan, pentsae-

ra bakar eta oroberdintzailearen ildotik hain zuzen. Zein datutan oinarritzen da PPK ezarri nahi duen erreformaren beharra? Non daude datu horiek?

Inguruan errotutako hezkuntza baten alde

Gizarteak eskatzen du ikastetxeek inguruko beharizanez erantzun diezaietela, etorkizunera begirako ikuspegi batekin. Hori da euskal eskolen apustua duela zenbait hamarkadaz geroz, eta apustu hori indarrean da inork erreformarik goitik behera ezarri gabe. LOGSErekin, Espainiako hezkuntzan, Europako ingurunera egokitze ahalegin bat egin nahi izan zen. PPK, ordea, aspaldiko hezkuntza-dukien eta planifikazioaren oriminez edo, hutsune bat aurkitu nahi du lehen erreforma honetan, ahazturik gure gizarte eta kultur ingurunea irekia dela, eleantza eta kulturantza, europarra, mendebaldekoa, demokratikoa eta modernoa, gizakien, giza taldeen eta erkidegoen ahalmenetan oinarritua, bai eta teknologia berrietan ere. PPrene erreforma anakronikoa eta insolidarioa da.

Hezkuntza berdintza baten alde

Hezkuntzak berdintasun printzipiotik abiatu behar du, bere zentzu guztietan, ikastetxeen bitartez bilatuz era guztietako desberdintasunak konpontzeko bideak (kulturazkoak, ekonomikoak nahiz sozialak), bai eta interes ezberdinen elkargunetak aurkitzeko ere. Izate diferentek, desberdintasun iturritzat hartu beharrean, pertsonen aberastasun globalaren indargarritzat hartu behar dira, bizikidetzaren giro egoki batean. Ez zaio bide eman behar inolako bereizkeriari, arrazoi ideologiko, erlijiozko, arrazazko edo sexuzkoetan oinarritutakori, ezta menpetasunari ere.

Euskal Hezkuntza moderno baten alde

Hezkuntza moderno, etorkizunari begirako eta kalitateko baten ezaugarriak honako hauek dira: prozedura pedagogi-

ko eta didaktikoen globalizazioa, ezagutzaren, heldutasun pertsonalaren eta izpiritu kritikoaren zerbitzuko jarririk, bai eta errespetu, enpatia eta elkartasun balioen zerbitzuko ere. Heziketa modu horrek eskatzen du eskola komunikateak erabaki ahalmen zabala izatea bere ikastetxeetan, eta baliabide ekonomiko, material eta humanoak izatea aipatutako hezkuntza autonomo eta demokratiko horren zerbitzuan jartzeko. Horrek batu egiten gaitu euskal irakaskuntza baten alde lanean ari garen eta Adierazpen hau sinatzen dugun kideok. Hezkuntza-helburu horiei begira jarriak daude gure asmoak eta jarduna. Eta hori guztia kontrajarria dago PPK nahi duen Erreforma honekin, bai bere ulertzeko moduan, bai oinarrizko planteamenduetan. Gure aukera hauxe da: irakaskuntza modernoa, ikasle bakoitzaren-gandik abiatzen dena, bere inguru geografiko eta humanotik, eta globaltasunera irekitzen dena, aldi berean indartzen dituelarik ezagumen partikularra eta unibertsala, banakoaren heldutasuna eta giza balioak.

Euskal Hezkuntza plural baten alde

Hezkuntza oroberdintzailea eta baztertzailea iruzur hutsa da. Menpekotasunean hezitzeak ez dakar etorkizunik. HEZKUNTZA, hizki larriekin idazten dena, sormenezkoa da, askatasunean loratzen da, askotarikoa da, bizia bera den bezala, pertsonak ere era askotakoak garen bezala. Demokratikoa izan behar du, hau da, zuzen-zuzenean parte hartzen dutenek eztabaidatua, adostua eta burutua: ikasleek, familiek eta profesionalak. Aniztasunaren elkargune horretatik abiatuta, errespetua izan behar zaie gehiengoei bezala gutxiengoei, bai eta egoera bereziei ere. Euskal heziketa askotarikoa da, ikastetxe bakoitzean eztabaidatua eta erabakia, ikasle bakoitzaren eritmoa aintzat hartzen duena eta desberdintasunen orekatzailea. PPrene erreforma hau, aldiz, pentsaera bakarrean, zatiketan eta eskolako bereizkerian oinarritua, alderdiaren interesean eta goitik beherako ezarpenean oinarritua, ez da bidezkoa.

Euskal Hezkuntza kultura-arte baten alde

Elebakartasuna eta kultur sektarismoa Hezkuntzarekin bateraezinak dira. Euskal ikastetxeek azken berrogei urteetan bildutako esperientziak bermatzen du gure etorkizuneko apustua: euskal Hezkuntza eleanitz baten aldekoa, non euskara izango den komunikazio-lotura bateratzailea. Frantsesa eta gaztelania ere gure gizarte bizitza hurbilenekoaren par-

te dira, eta ingelesak bide ematen digu inguru zabalagora iristeko. Hizkuntza-planteamendu horren gainean, euskarazko Hezkuntzak kurrikulum kultura-arte baten egiten du. Lehen-lehenik, euskal kulturaren beraren barrenean —aldi berean baserrialdekoa eta hirikoa baita, kostakoa eta barnealdekoa, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa, ekialdekoa eta mendebaldekoa, tradizionala eta modernoa...—. Eta bigarrenik, baina plano berean, gure gizarte bati biziak diren beste herri batzuen kultura ere biltzen du; eremu zabalagoa hartzen du, hala nola europarra eta unibertsala. PPrene erreformak hori guztia ezabatu egin nahi du, pentsaera bakar espainolarekin ordezkatu.

Euskal Hezkuntzako legeria propio baten alde

Guk aukeratu dugun Hezkuntza ereduak bai baduela beharrian bat aski handia: bera garatu eta indartzeko lege-bitarteko egokiz hornitzea. Orain arte Espainiako gobernuen aldetik bultzatu diren erreformak —eta azkeneko hau da adibiderik onena— interes jakin batzuetatik abiatu dira, arlo honetan behintzat gurekin bat ez datozen interes batzuetatik. Horregatik, dei egiten diogu Euskal herriko klase politikoa ahalegin handiagoga egin dezan euskarazko Hezkuntza baten alde dagokion zeregin hezitzaile-sozialean, eta ez dezala gehiago sutu hezkuntzaren arlora ere hedatutako alderdi-aurkaritza hori. Izan ere, konfrontazio horrek ez du batere laguntzen Euskal Herrian hain beharrezko dugun gizarte-kohesioa lortzen. Ordezkaritza politikoei aitzindaritza eskatzen diegu, lidergoa, euskal Hezkuntzak lortu duen garapenaren neurrikoa, horretan bat baikatuz hezkuntza-komunitate-kideen gehiengo handi-handi bat. Eskatzen diegu, ordezkaritza politikoei, konprometi daitezela Euskal Hezkuntzarako Legeria propio baten bidezko oinarrizko adostasun sendo batean.

Ikastolen Elkarte, Sortzen-Ikasbatuaz eta Euskal Herriko Gurasoen Elkarte (BIGE, Baikara, Sortzen eta Denon Eskola).

Euskal Herrian, 2000ko azaroaren 29an.

Erne!
Abenduaren 16an
GUK GEURE ESKOLA
kalejira
BILBOn

Sarean Elkartearen IX. Topaketetan zuzendaritzaren alderdiak aztertu dira

Beste urte batez Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen zuzendaritzetan aritzen diren pertsonak bildu ditu Sareanek. Horiez gain, hezkuntza munduko beste erakundeetako ordezkariak ere parte hartu dute. Guztira 100 pertsonatik gora bildu dira IX. Topaketak hauetan.

Aurtengo gai nagusia Ikastetxeetako zuzendaritza izan da. **Sareanek ezinbestekotzat jo du gai hori aztertzea, hezkuntza sistema publikoak bere etengabeko hobekuntza lanean daukan arazo nagusienetako bat delako. Arrazoi horregatik, eta ikasturte honen azken hiruhilabetean zuzendarien hauteskundeak aurreikusita daudelako, proposa ikusi dute gaia lantzea.**

Gai hori ukitzen duten hiru ardatz nagusi aztertutuzte: zuzendaritza lana eta taldeen berriztapena, eskumenak eta formazioa eta pizgarriak.

Zuzendaritza lanetan dabiltzan profesionalen arteko hausnarketa, iritzi trukaketa eta proposamen bilketa egiteko balio izan dute topaketok.





Hezkuntzako partaide ugariaren omenaldia joso zuen Loli Anautek azaroaren 18an.

Hezkuntza Digitalaren Nazioarteko I. Biltzarra burutuko da Bilbon

Abenduaren 11 eta 12an "Hezkuntza Digitalaren Nazioarteko I. Biltzarra burutuko da Bilboko Euskalduna Jauregian. Topaketa honetan hezkuntza digitalean diharduten ikertzaile eta aditu gailenek hartuko dute parte. Ikerketa eta berrikuntzako prozesuez eta IKTek prozesu horretan betetzen duten funtzioaz arduratzen diren hezitzaile, ikertzaile eta espezialistei zuzenduta dago.

Bi egunetan zehar hainbat komunikazio aurkeztuko dituzte unibertsitateko zein ikastetxeetako irakasleek eta ikertzaileek. Mahai inguruak eta esperientziei buruzko taulak ere izango dira. Era berean, gaiari buruzko material, dokumentu eta argitalpenen erakusketa ere ikusgai izango dira, eta tailer praktikoak ere burutuko dira.

Loli Anaut irakaslea omendu du Amara Berri ikastetxeak

Azaroaren 18an jendez gainezka egin zuen Donostiako Kursaalak Loli Anaut irakasleari omenaldia egitera bildu zirenekin. Amara Berri ikastetxe publikoko zuzendari pedagogikoa izan zen eta orain jubilatu berri da. Hezkuntzari egin dion ekarpena omendu nahi izan dute Amara Berriko bere lankideek, gurasoek eta ikasleek.

Goizean zehar Amara Berri ikastetxeko sistemari buruzko erakusketa izan zen ikusgai, bertan ikasleek egindako hainbat lan ikusteko parada izan zelarik. Horrez gain, ikasleak zuzeneko irrati eta telebista saioak egin zituzten, bertaratutakoek ikus-entzuteko moduan.

Ondoren, omenaldi ekitaldia egin zitzaion Loli Anauti, bere ibilbidea eta lana gogora ekartzeko eta gerturatutako guztiei beronen berri emateko balio izan zuelarik.

Loli Anautek Durangoko tal-

dearen esperientzia bezala eza-gutzen den hezkuntza eredua diseinatu eta bultzatu zuen 1972tik aurrera. Esperientzia hura eten bazen ere, "Izan zitekeen eskola" liburuan bildua gelditu zuen.

Kontzepzio horretatik abiatuz, 1979an Amara Berri ikastetxean "Globalizazioa sistema ireki baten barruko bizi bilakabide gisa" hezkuntza proiektua gauzatzeari ekin zion.

1990an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Hezkuntza Berrikuntzarako ikastetxe izendatu zuen Amara Berri eskola. Ikerketa eta berrikuntza pedagogikoa lana, irakasleriaren formakuntza eta Euskal Erkidegoko hezkuntza sare ezberdinetako ikastetxeen aholkularitza ofizialki aitortu zituen. Gaur egun hogeitau baina gehiago dira sistema honetan lan egiten duten ikastetxeak.

II. hik hasi Udako Topaketak

Hasi gara datorren uztailaren hasierako Udako Topaketa Pedagogikoak antolatzen.

Iazkoak aberatsak izan baziren, oraingoak ere hala izatea nahi dugu. Horretarako zure ekarpenak oso baliagarriak izango zaizkigu. Orain duzu aukera zure proposamenak egiteko.

Zein ikastaro antolatuko zenituzke II. HIK HASI Udako Topaketetarako?

Jar zaitetz gurekin harremanetan zure proposamenen berri emateko.



hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA
SARIAK**
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
5.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
200 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria
Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160
LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA
Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

Argitalpenak



Gazteak eta Euskara
Zenbaiten artean
180 or.

Euskararen ezagutza mailak gora egin du nabarmen azken urte haue-
tan. Ez da gauza bera gertatu euska-
raren erabilpenarekin.

Liburu honetan, 12-18 urte bitar-
teko gazteen artean euskararen era-
bilpena sustatzeko abian dauden
programak aurkituko dituzu. •



**EAEko ikastetxe publikoeta-
ko zuzendaritzari buruzko azter-
lana**
Euskadiko Eskola Kontseilua
182 or.

Liburu honek Euskadio Eskola
Kontseiluak egindako EAEko ikas-
tetxe publikoetako zuzendaritzari
buruzko ikerketa lana biltzen du. 24
pertsonek elkarrizketatu eta zuzenda-
ritza-kargu guztiei galdetegi bat bi-
dali ondoren 580 erantzun jaso zituz-
ten. Guztiaren ondorioak liburu ho-
netan bildu dituzte. •



**Euskal irakaskuntza autono-
mi aroan (1983-1994)**
Paulo Iztueta
Utriusque Vasconiae
203 or.

Liburu honetan EAEn hezkuntza
elebiduna aplikatzen hasten den ga-
raitik hasi eta Euskal Eskola Publi-
koaren Legea aldarrikatu bitarteko e-
pealdian zehar euskal irakaskuntzak
izandako garapena aztertzen da: ara-
zoak, alternatibak, plataforma insti-
tuzionalisten eta herri mugimen-
duen arteko erlazio indarrak e.a. •



Axa mixa zilarra
J. M. Olaizola "Txiliku"
Elkarlanean

Euskaraz jolas egiteko liburua da
honako hau. Irakurtzeko baino
gehiago jolasean egiteko liburua da.
Igarkizunak, ipuinak, kantar, hitz-jo-
koak, aho-korapiloak, jolasak eta
beste hainbat bitxikeria biltzen ditu.
Guztiak zenbatuta daude, eta zenba-
ki bakoitien eta bikoitien multzoan
banatuta daude, batetik bestera sal-
toka irakurtzekoak direlarik, jolase-
an ibiliz, alegia. •



Erregina bahitua
Aitor Arana
Edebé-Giltza
102 or.

9 urtetik gorako haurrei zuzendu-
tako liburu honek basoko izaki magi-
koen munduan murgiltzen gaitu.
Sorginen, lamien, jainkosen, heren-
sugeen eta iratxoaren kondairak ira-
kurterrazak eta atseginak izateaz
gain, Euskal Herriko mitologiara eta
parajeetan barrena bidaiatzeko au-
kera ematen digu.



Hugo
Karlos Linazasoro
Aizkorri
34 or.

"Mendi sorgindua" bildumako
lan berri hau irakurle txikienei zuzen-
dua dago. Haur beldurrak jorrotzen
ditu Hugo pertsonaiarekin. Berak,
gogoz kontra bada ere, larunbatean
amonaren etxera joan behar du lo e-
gitera. Han, jolasean ari dela, zarata
kirrinkari bat entzungo du. Nork edo
zerk egin du zarata hori? •

Joseph D. Novak

Joseph D. Novak irakasle eta ikerlari estatubatuarra XX. mendearen bigarren erdiko hezkuntzan eragin handia izan duen aditu ospetsuenetako bat bezala ezagutzen da. Ospe hori bere hezkuntzaren teoriari eta orain dela 25 urte egin zuen Kontzeptuzko Mapen teknikari zor dio. Bere teoria Ausubelen teoriarin oinarriturik dagoen teoria kongnitibo bat da, eta horrenbestez, helburua kongnitibismoaren ikuspegitik ikasketa prozesua teorikoki esplikatzea da. Planteamendu ausubeliar honek bat egiten du gaur egungo filosofia konstruktibistaren ikuspuntuekin. Bere teoriari Giza konstruktibismoa deitzen dio. Ikasketa teoria honek ikaste kontzeptuen garrantzia azpimarratzen du. Ikaste esanguratsua eta Kontzeptuzko Mapak dira bere ideiak laburbiltzen dituzten hitzak.

Biografia

Joseph D. Novak Cornell Unibertsitateko Hezkuntza eta Biologia katedraduna da. Unibertsitate hori EEBBtako New York estatuko Ithaca hirian dago. 1952an Zientzia eta Matematikan graduatu zen Minnesota Unibertsitatean. 1954an Zientzien Didaktikan Masterra lortu zuen, eta 1958an Zientzien Didaktikako eta Biologiako doktoradutza, biak Minnesota Unibertsitatean.

Bere lan profesionala, bai irakasle moduan bai ikerlari gisa, EEBBtako hainbat unibertsitatetan burutu du: Minnesota Unibertsitatean, Kansas State Teachers College-n, eta Purdue, Harvard eta Cornell unibertsitateetan. Gehien landu dituen arloak hauek izan dira: kontzeptuen ikasketa, hezkuntzaren teoria baten garapena, irakasleriaren garapena, curriculum eta eskolatzeko hobetzeko heziketa teoria baten aplikazioa, zientzien irakaskuntzarako metodoak, osasun hezkuntza eta korporazioen pla-

Fermin M^a Garcia Gonzalez

NUP. Psikologia eta Pedagogia departamentua



nifikazioa eta hobekuntza, bai irabazi asmorik gabekoena eta bai irabazi asmoak dituztenena. Gai horien inguruan ehundaka tesi eta ikerketa lan zuzendu ditu.

Gauregun Cornell Unibertsitateko irakasle emeritua da eta zientzialari seniorra West Florida Unibertsitateko Human & Machine Cognition institutuan. Hainbat enpresa eta instituziotako hez-

kuntza aholkularia da, besteak beste Kodak eta NASAkoa.

Hezkuntza aholkulari eta ikertzaile gisa herrialde askotan izan da: Australia, Kanada, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Israel, Japonia, Mexiko, Portugal, Espainia, Suedia, Erresuma Batua, Venezuelak eta abar. Era berean, EEBBtako 300 ikastetxe eta unibertsitatetik gora bisitatu ditu.

Bere bizitza profesional zabala eta emankorra hezkuntza arloko prestigio-dun instituzio askok onartu du. Hainbat ohorezko sari jaso ditu, besteak beste, leku hauetakoak: Comahue Unibertsitate Nazionala (Argentina), Council of Scientific Society Presidents, Penn State University, National Association of Biology Teachers, National Association for Research in Science Teaching, Association for the Education of Teachers in Science eta University of North Carolina. Gainera, Novak irakasleak munduan garrantzi handiko karguak bete ditu: Na-

tional Association for Research in Science Teaching-go (NARST) idazkari eta lehendakari, Science Education aldizkari-ko editore, American Association for the Advancement of Science-ko (AAAS) idazkari eta lehendakari, eta Biological Sciences Curriculum Studies-eko (BSCS) zuzendaritza taldeko kide.

23 libururen, sei monografikoren eta munduko aldizkari profesional entzute-suenetako ehundaka artikuluren egilea da. XX. mendearen bigarren erdiko hezkuntzan eragin handia izan duen aditu ospetsuenetako bat bezala ezagutzen da. Ospe hori bere hezkuntzaren teoriari eta orain dela 25 urte egin zuen Kontzeptuzko Mapen teknikari zor dio. Bere lana hizkuntza askotara itzuli da.

Bere lanaren garrantzia eta hezkuntzan duen zabalkundea eta eragina pertsonalki egiaztatu ahal izan ditut, 1989az geroztik berarekin kolaboratzen baitut eta 1989an, 1993an, 1995ean eta 1997an Cornell Unibertsitatean irakasle bisitari izan bainaiz. Gure arteko kolaborazioaren fruitu dira ikaste esanguratsuari eta Kontzeptuzko Mapei buruzko bi liburu.

Teoriaren ildoragusiak

Novak-ek bere lana Ausubel-en teoriarin oinarritu du, zeina bien arteko lan batean berregina izan zen (Ausubel, Novak eta Hanesian, 1987). Teoria kognitibo bat da, eta horrenbestez, helburua kognitibismoaren ikuspegitik ikasketa prozesua teorikoki esplikatzea da. Kognizioaren psikologia (kognitibismoa) gizakia munduan kokatu eta antolatzen denean gertatzen dena azaltzen saiatzen da. Ulermen, eraldaketa eta bilketa prozesuez eta informazioaren erabilpenaz arduratzen da, betiere kognizioaren barruan kokaturik.

Planteamendu teoriko ausubeliar honek bat egiten du gaur egungo filosofia konstruktibistaren ikuspuntuekin. Honek zientzia dinamikoa dela dio, ez geldia, eta gure mundua gure esperientzietako pertzepzioekin egituratzen dugula sinesten du. Ikuspuntu horren arabera, ezagutza malgua da eta

garatu egiten da aurkikuntza berrietan oinarriturik, ez da absolutua.

Gizabanakoaren egitura kognitiboaren prozesu kognitiboaren ondorioz sortzen den gune antolatua da. Aipatu prozesuaren bidez ezagutza hartu eta erabili egiten du. Ideia eta informazio berriak ikasi eta gorde egin daitezke kontzeptu esanguratsuak eta barneratuak argi eta garbi baldin badaude gizabanakoaren egitura kognitiboan. Hala bada, ideia eta kontzeptu berrientzat ainguraleku izango da. Kontzeptu berriek gizabanakoarentzat esanahia hartzen dutenean, lehendik dauden kontzeptuekin elkartu ondoren, lehendik dauden kontzeptuek berriak onartzen badituzte, eta beren bereizketa, egitea eta egonkortasuna bultzatzen badituzte, ikastea esanguratsua dela esaten da.

Kognitibisten arabera, modu honetako ikasketa ezagutza arlo bateko informazio kantitate handia hartzeko eta gordetzeko giza mekanismoa da. Ikuspegi horren arabera, ikaste esanguratsuen prozesua da ikaskuntzarik garrantzitsua.

Ikasketaren teoria honek ikaste kontzeptuen garrantzia azpimarratzen du. Ausubelek berak baieztapen entzutetsu hau egin zuen: "hezkuntza psikologia guztia printzipio bakar batera murriztu beharko banu, hauxe esango nuke: i-

kasketan eragiten duen faktorerik garrantzitsuenak ikasleak dagoeneko bada-kiena da. Araka dezagun hori eta irakats dezagun modu kontsekuentean".

Ikaste esanguratsuak baditu abantaila batzuk. Hasteko, esanahiaz ikasten diren kontzeptuek gizabanakoaren ezagutza zabal dezakete. Ikaste esanguratsuak kontzeptu berrien eta aurrekoen arteko lotura esentzial eta logikoen nahitako eraketa dakar berekin. Esanahiez ikasitako informazioa denbora gehiagoan gordeko da. Kontzeptu horiek erlazioen arteko kontzeptuen ikasketarako balio dezakete beranduago. Ausubel eta Novak eskolatzeko ikasgai bateko kontzeptu orokorrak azpimarratu beharko litzukeela defendatzen dute. Gainera, ikasle bakoitzaren egitura kognitiboan pilatutako kontzeptu multzoa bakarra da. Gizabanako bakoitzari hori aurrera eramateko gai izan dadin, eskolatzeko ikasleei ikasi behar duten materiala beraienez esanguratsua izango den moduan berregiteko eta berantolatzeko aukera eman behar die.

Alderantziz, errepikatzearen ondorioz buruz ikasitako informazioa egitura kognitiboan pilatzen da aurretik dauden kontzeptu esanguratsuekin erlazioatu gabe. Ondorioz, ikaste esanguratsuan gertatzen diren aldaketetatik at gelditzen da. Buruz ikasteak ikasketa berritik



aldentzea dakar, aldiz, ikaste esanguratsuak ikasketa berria errazten du.

Esanahiez ikasitako materialak denbora luzez atxiki daitezke, hilabeteetan edota urtetan. Errepikapenaren ondorioz buruz ikasitako ezagutzak, berriz, oso denbora gutxian, ordu edo egun batzuetan.

Irakasleak irakaskuntzaren arrazoi eraginkorraketa erantzuleak dira. Benetako ikasketa, ordea, ikaslearen ekin-tzak sortzen du, ez irakasleak, ikasten duenaren erantzukizuna du.

Ikaste esanguratsuak zera eskatzen du:

- Ikaste esanguratsurako materiala, kontzeptualki gardena.

- Esanahiez ikasteko jarrera, hau da, haurrak gogotsu egon behar du material berriaren kontzeptu bakoitza lehenik bere egitura kognitiboan dauzkan kontzeptuekin lotzeko.

- Egitura kognitibo egokia, hau da, bertan dauden kontzeptuak kontzeptu berriekin erlazionatuak izan daitezela eta ez arbitrarioki.

Ikaste esanguratsuen baldintza horiek eragin didaktiko-pedagogiko nabarmenak dituzte irakaskuntzako profesionalentzat. Izan ere, alde batetik, ikaslearen egitura kognitiboa ezagutzea eskatzen dute; beste aldetik, curriculumaren eta eskolatzearen planifikazio egokia; eta azkenik, ikasketa eredu honen aldeko jarrerak bultzatzea ikasleengan, horretarako beharrezko den motibazio potentziala garatuz.

Novakék bere teoriari Giza konstruktibismoa deitzen dio. Bere tesian zera azpimarratzen du: gertutik aztertu behar dugula giza ikasketaren psikologia eta ezagutza filosofikoaren arteko lotura. Ezagutza berriak sortzea ikaste esanguratsuen modu bat da sortzaileentzat. Horrek batzuetan zera eskatzen du: gertakari eta objektuetan erregulartasun berriak daudela onartzea, kontzeptu berriak sortzea edo zaharrak zabaltzea, kontzeptuen artean erlazio berriak asmatzea, eta aldaketa sortzaileenetan egitura kontzeptualak berregituratzea maila altuagoko erlazioak ikusteko.



Gizakiak bakarrik erabiltzen du hizkuntza sinbolikoa hartzen dituen erregulartasunak kodifikatzeko. Gizakiak bakarrik sortzen ditu esanahi eta ezagutza berriak sistema sinbolikoak erabiliz. Giza konstruktibismoa giza ikasketaren psikologia eta ezagutzen konstruktibismoaren epistemologia integratzeko ahalegina da. Bai psikologian eta bai epistemologian esanahien eraikuntzan zentratu behar dugula azpimarratzen du. Kontzeptuak hartzea edo aldatzea eta elkarren artean erlazioztatzea esan nahi du horrek.

Kontzeptuen eta beren arteko trukeen aukera ia amaigabea da eta horrek azaltzen du egitura kontzeptual indibidualen idiosinkrasia handia. Halere, esanahiek ezaugarri komun eta isomorfismo nahikoa badute diskurtsoa posible izan dadin eta esanahiak konpartitzea, zabaltzea eta aldatzea lor dadin. Errealitate horrek posible egiten du heziketa lana.

Gizakiengan garatu gabe dagoen ikasketa potentzial handia dagoela dio Novakek, eta heziketa askok beronen adierazpena bultzatu baino gehiago oztotatu egiten dutela. Zorionez, giza ikasketaren (metaikasketa) gaur egungo ezagutzak eta gizakiak ezagutza berria (metaezagutza) eraikitzeke erabiltzen dituen prozesuek ikaslearen adimen potentzia askoz gehiago askatzen laguntzen dute.

Novakek eta bere lan taldeak 1975ean sortutako Kontzeptuzko Mapen teknika marko teoriko horretan eratu zen. Teknika horrek ikuspuntu praktikotik printzipio teoriko horiek guztiak antolatzeko aukera emango digu. Baliozkotasun enpiriko zabal eta zehatzek (eta Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta Goi Mailako Hezkuntzan guk egin ditugun ikerketek) Kontzeptuzko Mapen efikazia baieztatu egin dute. Esaterako, erabilgarriak dira hezkuntzako hainbat arlo komunetan erabiltzeko, ikaste esanguratsua lortzeko, eta zientzien ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetzeko. Gai bateko arlo zehatz bati buruz daukagun ezagutza, arlo horretako kontzeptuen egituraketa antolatuaren eta

ordenatuaren ondorio da. Kontzeptu horiek norberarentzat bereizgarriak diren esaldietan lotuta daude. Sistema hau Kontzeptuzko Maparen bitartez adieraz daiteke.

Kontzeptuzko Mapa zera da: gizaki batek bere buruan dauzkan kontzeptuen erlazioaren eta hierarkiren adierazpen bisuala. Hitz egin edo idazten dugunean hierarkia hori lineala bihurtzen da. Beste norbaitek forma lineal hori entzun edo irakurtzen badu hitzaldi, testu, artikulua edo txosten batean, bere burmuinerako egitura hierarkikoan bihurtu behar du ikaste esanguratsua izan dadin; bere egitura kognitiboan lehendik dauzkan kontzeptuekin lotu behar ditu. Kontzeptuzko Mapa bitartekari izan daiteke material hierarkikoa testu lineal bezala itzultzeko eta alderantzizkoak egiteko. Horrek ikaste esanguratsua bermatzen du kontzeptu berriak lehendik dauden egituretan barneratzen direlako, eta ez direlako isolatuta, buruzikasita eta azkenean ahaztuta gelditzen.

Kontzeptuzko Mapek esanahi berriak eraikitzen laguntzen digute burmuinean kokatzen ditugun ezagutzak epeluzerako antolatzeko balio digutela eta burmuineko aldazio funtzioa bete dezaketelako gure oroimen funtzionalean dauzkagun ezagutza zatiak lortzeko. Oroimen funtzionala gehitu edo gutxitu egiten da gure egitura kognosiziboen kantitatearen eta kalitatearen arabera.

Teknika honen garrantzia handia da eta horren frogak dugu iparramerikako *Journal of Research in Science Teaching* aldizkari prestigiodunak Kontzeptuzko Mapei eskainitako zenbaki monografikoa (27. liburukia, 10. zbk., 1990).

Gure iritziz, eskolatzeko teknika honekin (hezkuntzako eredu konstruktibistan barneratua) eta bere eragin teoriko-praktiko sakonak menperatzearekin, irakasleak urrats garrantzitsua emango du bere aurreko esperientziaren esanahia eraldatzeko. Horrela, ezagutzen eraketen prozesu idiosinkratikoak zuzenduko ditu, beraien protagonistak ikasleek izan behar dutelarik. Aldaketa horrek irakaslearen pentsamoldea al-

datuko du, eta hori klabea da nahitaezkoa den hezkuntza erreforma dinamizatzeke.

Teoriaren garapena Euskal Herrian

Euskal Herriko ikastetxe aunitzetan jaso da Novaken prozeduren inguruko prestakuntza. Zalantzarik gabe, gure artean zabalduta da oso bere teoria. Nafarroan Jose M^a Huarte ikastetxe publikoan eta San Fermin ikastolako 2. etapan aplikatzen ari da gaur egun.

Bibliografia

Gaztelaniaz:

- AUSUBEL, D., NOVAK, J. D. eta HANESIAN, H.: *Psicología Educativa. Un punto de vista cognoscitivo*. Trillas. México. 1987.

- GONZALEZ, F. M. eta NOVAK, J. D.: *Aprendizaje significativo: técnicas y aplicaciones*. Ediciones pedagógicas. Madrid. 1996 (2. edizioa).

- GONZALEZ, F. M., IBÁÑEZ, F. C., CASALI, J., LOPEZ, J. J. eta NOVAK, J. D.: *Una aportación a la mejora de la calidad de la docencia universitaria: los mapas conceptuales*. Servicio de Publicaciones de la Universidad Pública de Navarra. Iruñea. 2000.

- NOVAK, J. D.: *Teoría y práctica de la Educación*. Alianza Universidad. Madrid. 1982.

- NOVAK, J. D.: *Conocimiento y aprendizaje. Los mapas conceptuales como herramientas facilitadoras para escuelas y empresas*. Alianza Editorial. Madrid. 1998.

- NOVAK, J. D. eta GOWIN, D. B.: *Aprendiendo a aprender*. Martínez Roca. Barcelona, 1988.

Ingelesez:

- MINTZES, J. J., WANDERSEE, J. H. and NOVAK, J. D.: *Teaching science for understanding. A human constructivist view*. Academic Press. San Diego, CA. 1998.

- MINTZES, J. J., WANDERSEE, J. H. and NOVAK, J. D.: *Assessing science understanding*. Academic Press. San Diego, CA. 2000.